

hh
hik hasi

Edu Apodakari elkarrizketa
D ereduan euskara berpiztu nahian
Pedagogo sortzaileak: Elbira Zipitria
Nola erabili ebaluazio hezigarria eta
partekatua Gorputz Hezkuntzan
Topic Nazioarteko Txotxongilo Zentroa
Lierni Altuna



SEASKAK 50 URTE

AURKIBIDEA

GAIA / 10

SEASKAK 50 URTE

Euskararen eta hezkuntzaren inguruan sortutako proiektua Iparraldeko proiektu kolektibo bilakatu da 50 urteko ibilbidearen ostean. Gizarte osoaren legitimitatea duen proiektu. Urratsez urrats denengana iritsi da, bere hezkuntza proiektua ardatz hartuta. Eta horren jiran gurasoak, irakasleak eta ikasleak erabat inplikaturik eta motibatuta. Parte-hartzea eta elkarlana zutabe dituztela.

ELKARRIZKETA / 16

EDU APODAKA

Filosofia ikasketekin batera, Soziologian egin zuen tesia Edu Apodakak eta hamar urte daramatza EHU-n Gizarte Soziologiako ikasgaia ematen. Utopia beti izan du oso gai hurbila, eta egungo gizarte neoliberal hone-tan eskolak eta gizarteak nolako izan beharko luketen amesten jarrita, utopia ariketa emankorra egin du elkarrizketan. Utopia hori alderdi pragmatikoarekin lotuta ulertzen du.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-01-16).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Benetako parte-hartzearen adibide bat dugu Seaskan

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Seaska Iparralde osoaren proiektu kolektiboa

16 ELKARRIZKETA

EDU APODAKA

“Nire utopia egungo eskola desagertzea a. Gizarte bizitzatik aparte dagoen sistema moduan desagertzea eta gure bizitzan integratzea”

26 EKARPENAK

D ereduan euskara berpiztu nahian

30 PEDAGOGO SORTZAILEAK

Elbira Zipitria

34 GALDEIDAZU

DAVID HORTIGÜELA

Nola erabili ebaluazio hezigarria eta partekatua Gorputz Hezkuntzan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Topic Txotxongilo Zentroa

42 ATZEKO ATETIK

Lierni Altuna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Benetako parte-hartzearen adibide bat dugu Seaskan

editoriala

PARTE-HARTZEAZ ASKO HITZ EGITEN DEN GARAIOTAN, SEASKAK HITZ EGIN EZ, BIZI EGIN DU PARTE-HARTZE HORI BERE 50 URTEKO IBILBIDEAN. BIZIPENAK ETA SENTIMENDUAK IZAN DIRA EREINDAKO HAZIAREN ONGARRI.

Azkenaldian jendartean asko aipatzen den parte-hartzeari buruz mintzatzen da Edu Apodaka filosofoa eta soziologo zerbait honetako elkarrizketan. Instituzioetatik parte hartzeko dinamikak bultzatzen ari dira, horretan espezializatutako teknikariak ugaritzen ari dira, elkartetan barne komunikazioa errazteko, harremanak lantzeko eta parte-hartzea bultzatzeko dinamikak lantzen dituzte parte-hartzean adituak diren dinamizatzaileekin... Gabezia bat ikusten da nonbait. Jendeak bere kabuz ez du parte hartzen, antza. Esnatu eta ikusarazi egin behar zaie parte hartu beharra dagoela, garrantzitsua dela... Goitik beherako parte-hartzea deitzen dio Apodakak horri: goian erabaki eta bitartekari “teknifikatu” batzuen bitartez egiten delako eta legitimazio bat lortzeko modua delako.

Dinamizazio horrek funtzionatzea zaila dela dio, osagai garrantzitsu bat falta zaiolako: sentitzea. Benetan zerbait inportantea dela sentitzen denean, ekarpen bat egin daitekeela sentitzen denean, egiteak merezi duela sentitzen denean, norberaren beharretatik sortzen denean, zentzua duela ikusten denean, orduan bai, orduan berez sortzen da parte hartzeko nahia, desioa edo erabakia. Eta horrek funtzionatzen du.

Eta hara non, Seaskan topatu dugu bigarren egoera hori. Duela 50 urte ereindako haziak fruituak ematen darrai, urte hauetan guztietan



funtsezko ongari bat izan duelako: parte-hartzea. Gurasoen, irakasleen eta ikasleen parte-hartzea eta elkarlana. Seaskako gurasoek badakite haurra ikastolara eramaten badute txandaka-txandaka ikastola garbitzera joan beharko dutela. Badakite dirua lortzeko animazioak antolatu beharko dituztela. Guraso Elkartean, gutxiago edo gehiago, esku bat bota beharko dutela. Eta nahi dute. Seme-alaben hezkuntzan parte hartu nahi dute.

Seaskan irakasteko hautua egiten duten irakasleek ere badakite elkarlanean aritu beharko dutela. Erabat normalizatu gabeko lan baldintza izango dituztela. Lan orduz kanpo hainbat ekintzatan parte hartu beharko dutela. Eta hautu hori egin dute. Nahi dute.

Hezkuntza proiektuaren inguruan, haren printzipioak, ildoak eta espiritua bizkarrezur hartuta, urtez urte eta urratsez urrats joan dira giro hori josten. Eta horrek sortu du sentimendu hori. Ikasleek gurasoak inplikaturik ikusi dituzte, gurasoek irakasleak, irakasleek laguntzaileak eta jangeletakoak... eta horrek sentimendu orokor bat sortu du. Bizipenetatik sortu den sentimendua. Elkarlanean bizi den familia handi bat eratu dute eta gustura sentitzen dira familia horretako kide izanda.

Elkartasun sareetan oinarritutako komunitateak behar ditugula dio Apodakak. Urrutira joan gabe, Seaskan badugu adibide bat.

“Kolonizatuen mentalitatea du euskaldunak, kultura mailan eta nazio mailan, ez maila ekonomikoan”.

Jose Manuel Odriozola



PROTESTEkin JARRAITZEN DUTE KRISTAU ESKOLETAN

Zortzi eguneko greba egin dute Kristau Eskolako eta IZEAKO ikastetxeetako langileek. Sindikatuek gogorarazi dute hamar urte daramatzatela lan hitzarmenik gabe eta langileen egoerarekin kexu dira. Lau ardatz dituzte eskariek. Batetik, soldatak: ohartarazi dute % 10 galdu dutela erosahalmena. Bigarrenik, lan zama: eskolak prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko orduak izatea. Hirugarrenik, haur-hezitzaileen eta hezkuntza laguntzako espezialisten egoera: haien lana irakaskuntza gisa hartzea, eta ordu osagarriak izatea. Eta, laugarrenik, enpleguari eustea: ikastetxeak ixten direnean langileak beste nonbait kokatzeko eredia egitea. Eskari horiekin lotutako proposamen batzuk egin ditu Kristau Eskolak —ordu osagarriekin lotutakoak, adibidez—, baina, sindikatuek ez dituzte nahikotzat jo.

Kristau Eskolak esana du aldarrikapen horiek “ulertzekoak” izan daitezkeela, baina ohartarazi du ez daukala bitartekorik. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa handiagoa eskatu du, baina hark dio bi aldeen arteko gatazka bat dela. Erdian daude ikasleak, eta gurasoek ere agerraldiak egin dituzte. Familiak “babes gabe” daudela eta Jaurlaritzari esku har dezala eskatu diote.

HIZKUNTZAREN BANDERA ‘ZELAA LEGEAREN’ KONTRA

Madrilgo Gobernuak otsailean onartzeko du LOMCE Hezkuntza Legea aldatzeko proposamena. Neurriak euskararen irakaskuntzari eragiten dio, esaterako, eskolak bermatu beharko duelako euskaraz zein gaztelaniaz maila egokia dutela ikasleek. PPK gaztelania babesteko proposamen bat aurkeztu du Espainiako Kongresuan eta *Hablamos Español* plataforma lanpostu publikoetan eskakizunak mugatzeko kanpaina egiten ari da.

IRAKASLE PENTSIODUNAK ERE BORROKAN

Pentsiodunek mobilizazioei eusteko asmoa erakutsi dute protestak hasi eta urtebetera. Donostian, Gasteizen eta Iruñean elkarretaratzeak egin dituzte urtarrilean eta tartean dira irakasle pentsiodunak ere. “Gobernuan edozein dagoela ere” euren aldarrikapenekin jarraituko dute: hala nola, KPlaren arabarako eguneraketa, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, sistema propioa, eta genero arrakala ezabatzea.

AURREMATRIKULAN 12 IKASTETXE HAUTATU DAITEZKE

Hainbat berritasun izango ditu aurtengo aurrematrikulazio kanpainak EAEn. Izan ere, ikastetxea hautatzeko eta umeak puntuatzeko modua aldatu dute. Ondorioz, gurasoek hamabi ikastetxe hautatzeko aukera izango dute, euren lehentasunen arabarako hurrenkeran. Urtarrilaren 28tik otsailaren 7ra bitartean egingo da kanpaina EAEn, eta otsailaren 4tik 8ra Nafarroan. Nafarroan iazko gisa berekoa izango da aurrematrikulazioa.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

ESKOLA JANGELETAKO ALDAKETA KRITIKATU DUTE ERAGILE DESBERDINEK



Eskoletako jantokiak kudeatzeko eredia moldatzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak: zerbitzua zuzenean kudeatzeko aukera emango die guraso eta elkartei. Urtarrilaren 10ean eman zuen erabakiaren berri Hezkuntza Sailak eta datorren ikasturtean jarriko dute indarrean neurria. Ikastetxe bakoitzak bere jangela kudeatu ahal izango du baina guraso elkarteek hartu beharko dute prozesua kudeatzeko ardura. Jaurlaritzak iragarri du diru laguntza sail bat jarriko duela halako proiektuak "erazteko". Hainbat eragile, baina, ez dira ados ikuspegi horrekin.

EHIGE gurasoen elkarteko koordinatzaile Lurdes Imazek behin-behinean egingandako balorazioaren arabera, "atzerapausoak" ekarriko ditu neurriak. Hain justu, jangelen kudeaketa ikastetxeek hartzeko eskatua zioten eragileek Jaurlaritzari: "Guraso elkarteak ezin dira ibili sukaldeko langileak kontratatzen; departamentuaren langileak izan behar dira". Gogora ekarri du, gainera, diru laguntzak sarri atzeratu egiten direla, eta ez dela erraza halako egitasmoak horrela abiatzea. Aldaketa handiagoa eskatzen dute: "Eredu berri bat".

Gure platera, gure aukera plataformaren arabera, Eusko Jaurlaritzak ez du eragileekin adostu eskola jangeletako aldaketa eta taldeak uste du euren eskariak ez direla aintzat hartu: elikadura burujabetza, jangela hezitzaileak eta eskola komunitatearen eta administrazioen kudeaketa partekatua.

ELAk, berriz, "gardentasunik eza" egotzi dio gobernuari, eta "ardura publikoak alboratzea", proposamena "enpleguarekiko eta lan baldintzekiko mespretxuz" egina delakoan. UGTK eta LABek ere adierazi dute 600 enplegu arriskuan jarri dituela.

EH Bilduk ere kritikatu du eredu berria: jangelak ikastetxeek kudeatu beharko lituzketela esan du. "Guraso elkarteak boluntarioek osatzen dituzte; ez dute gaitasunik jangelak kudeatzeko, eta Jaurlaritzak badaki".

EEP-K BERE GAIN HARTU DITU SEASKAKO LAU LANPOSTU ETA ERDI

Protesta eta mobilizazio ugariaren ondoren, azkenean lortu dute Seaskako ikastoletan irakasle postuen auzia bideratzea. Ikasle kopurua etengabe handitzen ari da, eta irailaz geroztik beste hogeit hamar irakasle ari dira Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikastoletan. Hori nola ordaindu, hori izan dute konponezina ikastolek eta erakundeek. Postuen erdiak bere gain hartzea onartu zuen Seaskak: hamar irakasle postu finantzatzea. Frantziako Hezkuntza Ministerioak, ordea, ez zuen onartu beste hamarrak pagatzea: bost postu eta erdi ordaintzea onartu zuen.

Azkenik, EEP Euskararen Erakunde Publikoak ordainduko ditu falta diren lau postu eta erdiak. Seaskako zuzendari Hur Gorostia-garentzat "azken urteetako egoera desblokeatzea lortu da eta urrats baikorra eta garrantzitsua da".





UEU-k UDABERRIAN ON-LINE NAHIZ EIBAR, IRUÑEA, BILBO ETA GASTEIZEN ESKAINIKO DITUEN IKASTAROETAN IZENA EMATEKO EPEA IREKI DU

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) jakitera eman du udaberrirako prestatu duen ikastaroen eskaintza. Ohi bezala, ikastaro horietako hainbat on-line egitekoak izango dira. Gehienak, ordea, ikastaro presentzialak izango dira, eta horiek UEUren Eibarko eta Iruñeko egoitzetan eskainiko dira. Horretaz gain, Gasteizen bi ikastaro antolatuko dituzte Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean, eta Bilbon beste bat Jakin, Kafe Antzokia eta Gabriel Aresti euskaltegiarekin elkarlanean.

Dagoeneko irekita dago ikastaro horietan izena emateko epea, eta UEUren webgunearen bidez edo UEUren egoitzetan egin daiteke. Informazio gehiago eskura daiteke www.ueu.eus webgunean.



'MUGIMENDUA ETA HIZKUNTZA' JARDUNALDIKO HITZALDIAK IKUSGAI DAUDE YOUTUBE-N

Hik Hasi-k urrian Donostian nahiz Bilbon antolatu zituen *Mugimendua eta Hizkuntza* jardunaldietako hitzaldiak ikusgai daude Hik Hasi-ren Youtube-ko kanalean. Honakoak dira hitzaldi horiek: Xabier Tapia psikologo klinikoaren *Bat bitan, bietan bat: motrizitatea eta hizkuntza*; Mar Corominas logopedaren *Hizkuntza 0-3 aldian: komunikazioa, elkarrizketa eta entzutea*; Jon Arana psikomotrizistaren *Mintzaira adierazmen psikomotorrean*; Cira Rodriguez psikomotrizistaren *Kanariar Uharteetako esperientzia bat*; Joxe Ramon Mauduit psikoterapeutaren *Egunak eman duenaren hausnarketa kritikoa*; eta mahai-ingurua.

'ADIMEN EMOZIONALA HEZKUNTZAN' IKASTAROA ANTOLATU DU TTiKLiK!-EK DONNA APELLANIZEN ESKUTIK

Adimen emozionala, emozioak era kontziente eta eraginkorrean ezagutu, ulertu eta kudeatzeko gaitasuna eskuratzen laguntzeko asmoz, ikastaroa antolatu du TTiKLiK! elkarguneak, hezkuntzako eragileei zuzenduta. Ikastaroa Donna Apellanizek eskainiko du; Lehen Hezkuntzako Magisteritzan diplomatu da bera, eta adimen emozionaleko irakaslea nahiz aholkulari emozionala da. Ikastaroa otsailak 7an hasiko da, eta ostegunero izango dira saioak apirilaren 11 bitartean, 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago eskura daiteke info@ttiklik.com e-mailean edo 646 50 22 98 telefono zenbakian.



JARDUNALDIA AUCOUTURIER PRAKTIKAREN 50. URTEURRENEAN

Aucouturier Praktika Psikomotorren 50. urteurrenean, Bilboko PEI EIP eskolak jardunaldiak antolatu ditu maiatzaren 10ean, 11n eta 12an Bilbon, EHUren Bizkaia Aretoan, Euskal Herrian urteotan psikomotrizitatearen arloan egin diren urratsak ezagutarazteko. Izena ondorengo estekan eman daiteke: <https://escvpsicomotricidad.com/formacion/cincuentenario-1969-2019/#matricula>.

HIZPIDE IZANGO DA

ORAINDIK IZENA EMAN DAITEKE OTSAILAREN 16AN DONOSTIAN EGINGO DEN 'ANIZTASUN SOZIALA ESKOLAN' JARDUNALDIAN



Aniztasun sozialari (nagusiki jatorriarekin eta maila sozio-ekonomikoarekin lotuta dagoenari) erantzutea erronka handia da gaur egun gure eskoletan. Egoera honen aurrean esku-hartze eta proiektu integrala behar da, eskola-komunitate osoa kontuan hartuko duena eta lankidetzaz sustatuko duena. Ikastetxe batzuek aurrerapausoak egin dituzte unibertsitatearekin elkarlanean (Mondragon Unibertsitatea). Horren berri emateko jardunaldia egingo da otsailaren 16an, larunbat goizez, Donostiako EHUren HEFA fakultatean. Jardunaldian aukera izango da ikastetxe horien ahotsak entzuteko:

- **Nola kudeatzen dute irakasleek aniztasun soziala?**
- **Zer bizipen dute irakasleek?**
- **Zer bizipen dute gurasoek?**
- **Zer rol jokatzeko du unibertsitateak?**

Izena emateko epea irekita dago jada. Informazio gehiagorako edota matrikula egiteko www.hikhasi.eus webgunera jo daiteke. Edozein zalantza izanez gero, berriz, idatzi hikhasi@hikhasi.eus helbidera edota deitu 943 37 14 08 telefono zenbakira.

- **Eguna:** 2019ko otsailaren 16a, larunbata, goizez.
- **Lekua:** EHUko Donostiako HEFA fakultatea (Oñati plaza, 3-Areto Nagusia).
- **Partaideak:** Eskoriatzako Luis Ezeiza Ikastetxea, Eibarko Arrateko Andra Mari Ikastetxea eta Mondragon Unibertsitatea.

KATALUNIARA BIDAI PEDAGOGIKOA ANTOLATU DU HIK HASIK ASTE SANTUKO OPORRALDIRAKO

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak aurtan ere bidaia pedagogikoa antolatu du Aste Santuko oporraldirako, azken urteetan egin bezala. Oraingo honetan, Kataluniako hezkuntza-sistemako hainbat ikastetxe eta proiektu eredugarri ezagutzea izango da helburua.

Hala, Escola Nova 21 proiektua ezagutuko dute parte-hartzaileek, baita Rosa Sensat Kataluniako irakasle eta hezitzaileen elkarte ere. Horrekin batera, egun horietan Haur Hezkuntzako ikastetxe bat, Lehen Hezkuntzako bi ikastetxe, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat bisitatuko dituzte. Bidaia apirilaren 23tik 27ra izango da, eta autobusez joango dira bertara partaideak. Otsailaren 11n irekiko da izena emateko epea, eta gutxi gorabehera hilabetez izango da irekita.

Iaz Kubara antolatu zuen Hik Hasi bidaia pedagogikoa, eta 2017an bi egin ziren: bata Finlandiara, Aste Santuan, eta Italiako Reggio Emiliara bestea, urrian. 2016an, berriz, Estoniako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia antolatu zuen.





Seaskak 50 urte beteko ditu apirilean. Urratsez urrats egindako bidea izan da, eta eman diren pauso guztiak izan dira inportanteak. Gurasoak izan dira motor. Parte hartzeko izan duten grina eta motibazioaren eraginez familia handi bat osatu dute. Irakasleak ere, jasotzen duten formakuntza bereziaren laguntzaz, elkarbizitzaren partaide zuzenak bihurtu dira. Inplikazio hori izan da ikasleen emaitza onak lortzeko sekretua. Seaskaren hezkuntza proiektua ardatz hartuta, horren espiritua barreiatu da gizartean: euskara, kultura, parte-hartzea eta elkarlana. Duela 50 urte euskararen eta hezkuntzaren inguruan sortutako proiektua Iparraldeko proiektu kolektibo bilakatu da. Gizarte osoaren zilegitasuna duen proiektu.

GAIA: SEASKA

Iparralde osoaren proiektu kolektiboa

1969ko apirilean hasi zen Seaskaren historia bi emakumeren arteko istorio batetik. Baionan bizi zen Argitxu Noblia emakume abertzaleak bere haurrak euskaraz hazi nahi zituen, ikasketak euskaraz egin zitzaten nahi zuen, eta hala, Libe Goñi irakasle errefuxiatuarengana jo zuen. Eta hortxe ezarri zen Seaskaren hazia: Iparraldeko emakume abertzale baten eta Hegoaldeko irakasle errefuxiatu baten artean. Oharkabea, bi ezaugarri nagusirekin: batetik, protagonistak emakumeak izan ziren; eta bestetik, mugarik gabe, bata Iparraldekoa zen eta bestea Hegoaldekoa. Gainera, Libe Goñi errefuxiatua zen, Frankismotik alde eginga, eta Euskal Herria nazio gisa ikusten zuen. Ikuspuntu abertzale horrekin sortu zen Seaska: naziorik gabe, baina euskal eskola nazionala egituratzen hasi ziren.

50 urte pasa ondoren, Iparraldeko historia ezin da Seaskarik gabe ulertu. Abentura hura hizkuntzaren eta hezkuntzaren inguruko gizarte proiektu bilakatu da. Euskaratik eta hezkuntzatik haratago, proiektu kolektibo kultural bat da Seaska. Alegia, Seaskak duen proiektua bikoitza dela esan genezake. Batetik, euskara berreskuratzea eta Iparraldea berriz euskalduntzea du helburu. Eta bestetik, euskararen inguruko proiektu kultural bat ere bada. Hori da Seaskak Iparraldeari eskaini diona eta gizarteak oso ongi ulertu eta onartu duena. Paxkal Indo Seaskako lehendakariak dio biziki argi egon zela hasieratik euskal eskola proiektua

Seaskak zeramala. “1974an garaiko prefetak ukatu egin zuen Donapauleko ikastolaren sortzea eta Iparraldean ikastolen alde inoiz egin zen manifestaldirik handiena egin zen. Horrek erakusten du Seaskak berehala ukan zuela indarra eta indar hori behin baino gehiagotan erakutsia izan da frantses administrazioaren kontra. Garaian, anitzek ez zituzten haurrak ikastolan ukaiten, baina ikastolaren alde ziren, ikusten baitzen zein proiektu zen horren gibelean: Iparraldea euskalduntzeko euskarazko eskola proiektu bat. Gaur egun, 50 urte geroago, denek argi dute egiazko euskal eskola proiektua guk dugula”. Hastapenean proiektu euskaldun eta abertzale zelarik, abertzaleek eramaten zituzten haurrak ikastoletara. Gaur egun, abertzale ez direnek ere bai; beren seme-alabak euskalduntzea nahi baldin badute, Seaska delako bidea. Abertzaleen proiektu izatetik denen proiektu izatera pasa da, eta Seaskako lehendakariaren ustez, “ongi hartu dugun bihurtzea izan da”.

Gizarteko onarpen horrek eragina izan du hautetsiekiko harremanean Indok argitzen duenez: “Gaur egun Iparraldean hautetsi batek hautatua izan nahi badu eta bere postua erdietsi nahi baldin badu, ezin du euskararen kontra deus erran, ezin du ikastolen aurka deus erran. Eta ez da gaiztoak garelako eta jo egingo dugulako, ez. Baizik eta ohartu delako eramaten dugun lana gizartean oso ongi hartua dela eta gizarteak ez lukeela ongi hartuko bera kon-

GAIA: SEASKA

Iparralde osoaren proiektu kolektiboa

tra izatea”. Horregatik, hautetsiak kontra ezin dira agertu, eta alde agertzen direnak gero eta gehiago dira. “Gure kontra izan beharko luketen batzuk gure alde borrokatzen dute. Hori gertatu zaigu Parisen, nahiz eta mirakulu bat dirudien”, dio Indok. Edonola ere, horrek ez du esan nahi gauzak errazak direnik administrazioarekin. “Izan ere, alde agertu arren, zail dute gauzak egiteko. Erran nahi baita gaur egun Iparraldean eta frantses estatuan auzapez batek gauzak blokeatu nahi baldin baditu, baditu tresnak. Baina gauzak egiteko, ez horrenbeste. Ahal ditu lagundu ekintzailak, baina berak egin ez”. Baikor izateko motiboak izan arren, Frantzia ez dela “herri erraza” dio Seaskako lehen-dakariak. “Españiaren kontra borrokatzea erraza da; ez gaituzte maite. Frantzian maite gaituztela erraiten digute, baina gero azpitik oztopoak jartzen dizkigute eta efikazia handia dute”, gehitzen du.

Kultura arloko ekarpena

Euskarazko irakaskuntzan aritzeak diruaren premia ekarri izan du berekin, bai hastapenetan eta baita orain ere. Ikastoletako gurasoek ikastola biziarazteko dirua behar zuten eta askotariko ekintzak egin behar izaten zituzten dirua lortzeko. Eta horrek, oharkabean ondorio batzuk izan ditu, Indoren esanetan. “Hastapeneko urteetan kantaldiak antolatzen ziren: Peio eta Pantxoa, Etxamendi eta Larrarte, Mikel Laboa, Benito Lertxundi... Baina, ohartzten ote ziren guraso haiek kantaldiak antolatuz kultur ekimen bat egiten zutela? Eta kultur ekimen horrek kulturalki funtsa ematen ziola Ipar Euskal Herriari? Ez, diruagatik egiten zuten

lehenik, eta antolatzeagatik eta ongi pasatzeagatik bigarrenik. Ez kultur nahikeria batekin. ‘Kultura egituratuko dugu eta horretarako oraindik ezagunak ez diren artistak ekarriko ditugu eta agian egunen batean ezagunak izango dira...’. Ez, ez zuten horrelakorik pentsatzen. Horregatik, harrigarria da egunerokotasunean zerbait interesgarria eta pizgarria baldin baduzu, ez helburu, tresna bezala baizik, ondorio batzuk izatea. Hori oso aberatsa iruditzen zait”.

Talokin gauza bera gertatu zela gehitzen du. Orduan, jaialdien ondoren ogitartekoak saltzen zituzten dirua ateratzeko. Norbaiti taloak egitea bururatu zitzaion eta ohitura hori erabat zabaldu da Iparraldean. Lehen ikastolek bakarrik egiten zituzten taloak, eta gaur egun Iparraldean ezin da jairik egin talorik gabe. Egun Iparraldeko supermerkatuetan ere eros daitezke. Garai batean moda bat zen, eta orain, funtsean, kultura bat sortu da taloaren inguruan. Ikastolen beharretatik edo ikastoletan ziren gurasoen taldeetatik sortu zen zerbait, kultura bilakatu da. “Nonbait proiektu bat bazuten, ez zen taloa, proiektua herria zen, baina herria taloarekin egitea errazagoa da”, gaineratzen du.

Finean, bidean egin dituzten urrats txikiek sekulako indarra ukan dute eta urratsez urrats egin diren gauza guztiak inportanteak izan dira.

Gurasoen inplikazioa erabatekoa da

Seaskaren proiektuaren baitan 36 ikastola, 4.000 ikasle eta 2.500-3.000 familia inguru biltzen dira. “Duela 10 urte



sartu nintzen ni lehendakari eta orduan 2.000 haur ziren; orain bikoitza. Bistan da Seaska handitzen ari dela eta urtez urte matrikula kopuruak gora egiten du". Jarritako haziak fruituak eman ditu eta ematen segitzen du. Eta fruituaren kalitatea mantentzen asmatu dute, gurasoen lanari esker, hein handi batean. Hastapenetan bezalaxe, gurasoen gehiengo kontzientzia handiarekin sartzen da Seaskan eta egunerokotasunean antzematen da hori. Bidarteko Uhabia ikastolan bi lehendakari daude eta horietako bat da Anaiz Oltzomendi (bestea Ramuntxo Labat da). Berak dioenez, ikastolan dauden gurasoen gehiengoak, denak ez esatearren, parte hartzen dute ikastolaren egunerokotasunean. "Esate baterako, derrigorrezkoa da dirua ateratzeko antolatzen ditugun animazioetan eta asteburuetan ikastolaren garbiketan parte hartzea txandak eginez. Gurasook badakigu hasieratik hori egin beharko dugula, eta hortik aurrera, guraso elkartean inplikatzeko maila desberdinak daude". Alde batetik, bulegoa dago, eta hor lehendakaria, idazkaria eta diruzaina biltzen dira, zuzendariarekin batera. Gero, administrazio kontseilua dago. Eta azkenik, batzorde desberdinak: animazioak antolatzeko, arlo pedagogikoa lantzeko, Euskaraz Bizi batzordea eta orokorrean egiteko diren lanen inguruko batzordea. Bidarteko ikastolan 40 familia inguru dira.

Gurasoen inplikazioak ikasleen motibazioan eragin handia duela sinetsita daude. Eta horregatik saiatzen dira gurasoen artean giro ona edukitzen eta irakasleekin hartu-eman estua izaten. "Ostiral batzuetan, eskola bukatzen delarik, ipuin kontalari bat antolatzen dugu, euskaraz, eta guraso guztiak elkartzen gara hor haurrekin. Bakoitzak zerbait jateko ekartzen du, denok elkarrekin jaten dugu eta giro bat sortzen da", kontatzen du Bidarteko ikastolako lehendakariak. Gurasoen arteko giro horri garrantzi handia ematen dio Paxkal Indo Seaskako lehendakariak ere. "Esate baterako, ikastolaren garbiketa egiteko elkartzen garenean harreman fisiko bat sortzen da ikastolarekin, zure semearen edo alabaren mahaia garbitzen egon zaitezke. Umeek ikusten dute beren ama edo aitaren istorioa ere badela ikastola, inplikaturik ikusten dute, eta hori sentitu egiten da. Eta uste dut oso inportantea dela hori atxikitzea. Manifestaldi batean banderola atxikitzea bezain inportantea da hiru hilean behin garbiketa egitea. Zozoa irudi du, baina gure haurrentzako zinez inportantea da. Bestela, nola nahi duzu haur bat bere ikasketetan inplikaturik ez baldin baditu bere gurasoak motibatuta ikusten? Bakoitzak egiten baldin badu hori bere haurrekin, haur guztiak dute sentimendu hori. Eta haur guztiak baldin badute, sentimendu orokorra da guraso, irakasle eta ikasle, denak direla komunitate, familia handi bat. Hori da ikastolen arrakastaren oinarrietako bat. Eta hori ez dut esaten esateagatik, ikusi eta bizi dudalako baizik".

Seaska hautatzeko arrazoi askotarikoak dituzte gurasoek

Anaiz Oltzomendirentzat prozesu naturala eta simplea izan da umeak ikastolara eramatea: "Gu euskaldunak gara eta naturalki gure haurrek euskaraz ikastea nahi dugu, euskarazko hezkuntza bat ukaitea. Gu ere Seaskatik pasatuak ginen eta gure eskemetan ez zen sartzen eskola frantses batera eramatea. Horrez aparte, Seaskaren hezkuntza proiektuarekin bat egiten dugu eta interesgarriak iruditzen zaizkigu Seaskatik defendatzen diren gauzak eta Seaskak dituen ildok: euskara, elkartasuna, haurren autonomia, ikastola bizitzeko eta inplikatzeko manera... Eta hirugarren argumentua litzateke guk ere guraso bezala badugula zeregin bat, erantzukizun bat eta parte-hartze bat gure haurren hezkuntzan. Ikastolan etxean bezainbat denbora pasatzen dute eta horretan parte hartu ahal izatea erakargarria egiten zitzaigun".

Horra hor ikastola hautatzeko hiru arrazoi argi eta garbi. Edonola ere, denak ez dira Oltzomendiren egoeran. Lehen aipatu moduan, euskaraz ez dakiten guraso askok eramaten dituzte umeak ikastolara, eta horien motiboak desberdinak dira. Batzuek hizkuntzarekiko lotura dutelako hautatzen dute ikastola. Kasu batzuetan familian eten bat egon da, euskara ez da transmititu izan arrazoi politiko edo familiarrengatik. Eta umeek aiton-amonekin euskaraz hitz egitea nahi dute. Lotura bat sentitzen dute euskararekiko. Beste guraso batzuek umeek beste hizkuntza bat gehiago edukitzeko bidaltzen dituzte ikastolara. Beste hizkuntza bat edukita hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna izaten dela esaten da, eta horrek bultzata egiten dute hautu hori. Beste arrazoi bat ikasle kopurua izan daiteke. Ikastoletan eskola publikoetan baino ume gutxiago direlako. Eta azkenik, bada hezkuntza proiektuagatik hautatzen duenik ere.

Seaskaren emaitza onak

Komunikabide batean baino gehiagotan hitz egin da Seaskako haurren emaitza akademikoei buruz, eta modu positiboan. Hiru edo lau urtetik behin ikastolako ikasleen % 100ak lortzen du Baxoa gainditzea. Horrek esan nahi du Frantzia hoberenen artean daudela. "Rankinean hor garelarik, deitzen gaituzte batzuk erranez beren semea edo alaba lizeoan matrikulatu nahi dutela", dio Indok. "Une hartan lizeoko zuzendariak erran zion guk ez genituela ikasleak 15 edo 16 urterekin hartzen, 2 edo 3 urterekin baizik. Oso erantzun polita izan zen, zeren Seaskaren eta ikastolaren historia egiazko curriculum oso bat da. Egia da baxoa pasatzen delarik osatzen dela curriculum hori, baina bidea askoz lehenago hasten da. Eta nerretako bidea inportanteagoa da helburua edo diploma baino. Hastapenetik hasten gara lanean eta motibazioa ekotzi egiten da. Etxe bat bezala, adreiluz adreilu bata bestearen ondotik. Ez da sekretu handirik. 15 urte behar dira ume bat 3 urtetik 18 urtera pasatzeko, eta erritmo bera du hezkuntzak".

Seaskaren formakuntza


Seaskaren bereizgarrietako bat bere irakasleek duten prestakuntza berezia da. Frantses sistemak ez du eskaintzen euskarazko murgiltze eremuan aritzeko prestakuntzarik. Horregatik, Seaskak hastapenetik eskaini du prestakuntza berezi hori. Bere irakasleak prestatzeko formakuntza berezia, alegia. Jean Mixel Etxegarai Seaskako Hezkuntza zuzendariak dio garrantzitsua dela formakuntza hori, euskaraz ikasteko gai diren pertsonak eduki ahal izateko: “Garrantzitsua da formakuntza euskaraz izatea gero euskaraz lan egingo bada. Hiztegia, kontzeptuak eta beste hainbat gauza landu behar izaten dira, ez baita gauza bera euskaraz edo frantsesez irakastea”. Seaskako Hezkuntza Zuzendaritzako formatzaileak arduratzen dira prestakuntza horretaz. “Gure zeregina da irakasle berrien atzematea, formatzea eta gure proiektuan iraunkortzea”. Seaskak lau urteko formakuntza plan bat du Ama Eskolako eta Lehen Mailako irakasleak prestatzeko eta bi urtekoa Kolegioko eta Lizeoko irakasleentzat.

Lehenengo kasuan, behar dituzten lizentziadun elebidunak hautatzen dituzte eta lanpostu bat ematen diete ikastola batean. Pertsona horiei ordezkoak deitzen diete. Lehendabiziko urtean hiru atal ditu formakuntzak: saio teorikoak

Seaskaren proiektua ezagutzeko, didaktika pedagogikoa lantzeko, haurren garapenaren ezaugarriak ezagutzeko eta behar bereziak dituzten haurrekin aritzeko prestakuntza. Ordezko horiei tutore bat jartzen diete, beren maila berean lan egiten duen beste irakasle bat. Eta bikoteka funtzionatzen dute, elkarri lagunduz. Horrez gain, gelako jarraipena egiten dio Seaskako formatzaileak edo tutoreak ikasturtean zehar bost bisita eginez nola lan egiten duen ikusteko.

Behin lehen urtea pasata, balorazioa egiten dute bai Seaskak eta bai ordezkoak. Biak ados badira, formakuntzak aurrera darrai. Beste bi urteko prestakuntza jasotzen du: alde teorikotik pedagogia, didaktika eta psikologia landuz, eta praktikekin jarraituz. Eta aldi berean, frantses oposaketak egiteko prestakuntza ere jasotzen du. Bi urte horiek amaitutakoan frantses sistemako konkurtsoa egin behar izaten dute. Bien bitartean, master bat ere egin behar izaten dute.

Horrela, hiru urte horiek pasatakoan, konkurtsoa gainditu badute eta masterraren lehen urtea egina badute, laugarren proba urtera pasatzen dira: denbora erdiz gelan egiten dute lan eta beste denbora erdiz masterraren bigarren urtea



Seaskako Hezkuntza formakuntzako lantaldea.



prestatzen dute Seaskarekin. Ikasturte horretan frantses administrazioko ikuskari bat etortzen zaie gelara ordu eta erdiz, eta zer eta nola lan egiten duen begiratu ondoren txosten bat egiten du. Txostena baikorra bada frantses sisteman betiko titular bihurtzen dira. Horrek postu jabetza eta soldata handiago izatea ekartzen die.

Kolegioko eta lizeoko irakasleen kasuan, lau urteko prozesuaren orde bi urtekoa da. Kasu horretan irakatsiko duten gaiaren inguruko lizentziadunak hartzen dituzte eta bi urteko formakuntza ematen diete. Besteak bezala, saio teorikoak, esperientziadun tutore bat eta gelan bisitak izaten dituzte. Ondoren, balorazio bat egiten dute. Frantses sisteman sartzeko konkurtso bat egin behar dute hauek ere, 2. edo 3. urtean. Gehienek 3. urtean egiten dute ahozkoa eta arinagoa delako.

Seaskaren espiritua transmititzen

Seaskan lan egin nahi duten irakasleei Seaskaren espiritua transmititzen dietela dio Jean Mixel Etxegaraik. Espiritu horren lau zutabe aipatzen ditu:

- Euskara. Seaskan elebidun osoak eta bereziki euskararen osoak izan daitezen lan egiten dugu.
- Kultura eta identitatea, euskaldun gisa bizi nahi izatea edo garatzea.
- Militantismoa: izan guraso edo irakasle Seaskak oraindik militantismoa behar duela dio. “Militanteak esatean erran nahi dut emango duten pertsonak eta ideia argi bat dutenak euskal kulturaz, identitateaz eta Euskal Herriaz bere osotasunean”.
- Hezkuntza proiektua: pedagogia eta hezkuntza norabidea markatzen duen hezkuntza proiektua du Seaskak. Hezkuntzako hainbat balio eta printzipio finkatzen ditu eta horiek pasarazi nahi dizkiete irakasleen formakuntzan, gero ikastoletan gauza dezaten.

Printzipio horiek ardatz hartuta, Seaskako (edo beste edonongo) irakasle izateko garrantzi handia duten bi ezaugarri aipatzen ditu Hezkuntza zuzendariak. Batetik, irakasle

batek bere haur taldea harreman goxoekin, konfiantzarekin eta lan giroa zainduz kudeatzen jakin behar du. Eta bestetik, garrantzitsua da duen prestaketa; nola irakasten dien eta nola prestatzen duen bere lana. “Baina bere lana bere ikasletara eta bere gelara mugatzen badu, eskas da ikastetxeko proiektu osoa. Beraz, niretzat inportanteena irakasleen eta gurasoen arteko elkarlana da. Elkarlan hori eramateko nahikariak, gaitasuna eta motibazioa. Eta elkarlan hori den unetik, ikaslea zentroa jartzen dugu eta gero daude irakasleak, laguntzaileak, zainketakoak, kantinakoak eta gurasoak. Hezkuntza komunitatea deitzen diogu horri, eta horretan badenean komunikazioa, gogoeta egiteko gaitasuna, hautuak egiteko eta aterabideak elkarrekin egiteko gaitasuna, bakoitzak gero bere eremua baduenean, orduan ikastetxe bat aitzinera doa”.

Komunitate eta elkarte guztietan bezala, elkarlan horrek gorabeherak izaten ditu. Etxegaraik, oro har, elkarlanaren izpiritu hori antzematen du oraindik Seaskan. “Beti entzun da gurasoen motibazioa behera doala. Ez dakit. Ni duela 30 urte izan nintzen guraso eta gauza bera entzuten nuen. Eta beti joan gara aitzina eta garatu da. Bai irakasleek eta bai gurasoek ikastolaren hautua egin badute, uste dut nonbait badela espiritu hori. Irakasle izatera etortzen diren ikasle ohiek badakite beren gurasoak indarra eta denbora jarri zutela proiektuan eta pertzepzio hori badute. Sare publikotik edo kristau eskoletatik etortzen direnek ere zerbait diferentea sentitzen dute. Batzuk duten euskara mailarekin kezkatuta etortzen dira eta oso motibatuta egoten dira. Nahikari handia dute Seaskan integratzeko. Eta berdin gertatzen da Hegoaldetik etortzen direnekin; ongi integratzen dira eta Seaskako prestakuntzak agian beste ikuspegi bat emanen die”. Seaskak 50 urte bete dituen honetan, ikastolak talde dinamikoekin ikusten ditu Etxegaraik, elkarbizitza proiektua landuz, euskararen inguruko ekimenak antolatuz ikastolak herriari irekitzeko eta abar. Batzuetan hori hitzekin adieraztea zaila dela dio, baina bizipenetan hor dela, sentitu egiten dutela. Hazia hor da eta handitzen segitzen du.



“Nire utopia egungo eskola desagertzea da. Gizarte bizitzatik aparte dagoen sistema moduan desagertzea eta gure bizitzan integratzea”

ELKARRIZKETA:

EDU

APODAKA

FILOSOFIA ETA SOZIOLOGOA

Utopia beti izan du oso gai hurbila Edu Apodakak, agian Filosofia ikasketak egin zituelako. Baina, aldi berean, beti izan omen da oso pragmatikoa eta praktikoa, bai pentsamendu politikoan eta bai arlo akademikoan. Filosofia ikasketak egiten ari zela Soziologiarako grina zuen, eta azkenean Soziologian tesia egiten bukatu zuen. Baina tesi zuzendaria Gizarte Psikologiakoa zuen eta arlo horren eragina ere nabarmena du. Hamar urte

daramatza EHU'n Gizarte Soziologiako ikasgaia ematen. Horrexegatik esaten du dena diziplinartekotasun horretatik ikusten duela. Egungo gizarte neoliberal honetan eskolak eta gizarteak nolakoa izan beharko luketen amesten jarrita, utopia ariketa emankorra egin du elkarrizketan zehar. Baina utopia hori alderdi pragmatikoarekin lotuta; hau da, helburuak ekintzekin lotuz, alegia, zentzua bietan jarriz.



Utopiaz idatzi izan duzu eta esan izan duzu utopiak pragmatismoarekin lotuta egon behar duela, biak behar direla eraldaketak edo iraultzak egiteko. Azalduko al dizkiguzu kontzeptu horiek?

Mundua ikusteko era bat da, eta nik esango nuke horrekin bat egin dudala beti. Gure pentsamendua, gure sentimenduak, gure gaitasun psikologikoa ekintzan bertan errotu daitezke, egiten dugunean, eta gure egite horretatik hasi gure mundua ulertzen. Horrela, oso pragmatikoak izan gaitezke, eta aldi berean oso utopiazaleak.

Beste modu batera esanda, egiten dugun horretan zentzua izan behar dugulako behar ditugu biak. Eta zentzua lortzen dugu komun ditugun esanahietatik, espektatibetatik eta ilusioetatik, hau da, ekiteko behar ditugun helburuetatik. Ez dira bereizi behar gehiegi helburuak eta ekintza bera, ekintzari zentzua ematen diona delako helburua. Eta zentzu hori ekintzan bertan dago, ez kanpoan.

Utopiak idatzi diren guztietan ez dira izan irudimen ariketa hutsak. Beti proiektu edo kritika poli-

tikoekin oso lotuta egon dira. Ez dira munduak nola izan beharko lukeen irudikatze ariketa hutsak. Alde horretatik, nik uste dut beti traizio bat egin zaiola utopiari pragmatismoaren izenean, eta horrexegatik esaten dut pragmatismo hutsak edo bere atzean utopiarik ez duenak ez duela zentzurik edo zentzua galtzen duela. Eta orduan, pragmatismoa dogmatikoa bihurtzen da, itxia.

Pragmatismo dogmatikoaren parean pragmatismo iraultzailea edo eraldatzailea eduki dezakegu. Nola gaude gaur egun bakoitzetik?

Orain dela urte asko hasi ginen entzuten pentsamendu bakarra, neoliberalismoa, mundu ikuskerak bakarra, ez zegoela besterik, Margaret Thatcherren *There is not alternative* esaldi famatua... Sistema bakarra dugula. Ez dakit noraino den horrela, hori ere eztabaidatzeko kontu bat da, baina bakarra baldin badugu, utopia horren parean beste utopia bat jartzeko gaitasuna eduki beharko genuke. Bestela jendea ez da motibatzen. Zergatik? Ekintzek ez dutelako zentzurik.

Horrexegatik, kale mobilizazioetan ikusten ari gara jendea berehala mugitzen dela zentzu hori sumatzen duenean: 'hau egiten dudanean, zerbait lortuko dut'. Horrek badu zentzurik.

Ikusten da baditugula nolabait politika eta egitasmo txiki asko, kasu askotan txikitasunetik mundua iraultzeko gaitasuna edo potentzialtasuna eduki dezaketenak, baina aldi berean, ez daukagula hori dena benetan irudimen bakar batean biltzerik. Ez da lortzen. Milaka ñabardura edo desberdintasun egon daitezke, baina ez dira artikulatzen.

Beste modu batera esanda, egia da ez dagoela alternatiba bakar bat. Alternatiba asko egon daitezke, baina alternatiba horiek ez dira ondo artikulatzen gutxienez marxian hasteko proiektu batean. Eta artikulazio horren falta nabaritzen da asko gaur egun kritika politikoan eta, batez ere, ezkerraldeetik datorren kritika politikoan. Hori oso agerikoa da. Argi dago ez dagoela mundu ikuskerarik eta hori dela eztabaidaren muina.

Jende asko ari da esaten subjektuaren artikulazioa falta zaigula, eta

oso gai potoloa da. Baina bada beste bat, eta niretzat hori inportanteago da agian; subjektua baino lehenago egitasmoa eta utopia txiki horien artikulazioa. Hori falta zaigu.

Artikulazio horren falta hezkuntzan ere sumatzen da. Sistemaren antolaketan, esaterako, askatu ezin dugun korapilo bat daukagu: publikoa-pribatua dikotomia. Nola ikusten duzu korapilo hori?

Korapilo hori arlo askotan dugu, baina hemen bereziki hezkuntzan, herri gisa definitzeko izan ditugun tresnak, baliabideak eta irizpideak oso lotuta daudelako eskolan egiten den lanarekin. Beste lekuetan osasunarekin, baliabide naturalen kudeaketarekin eta abar gertatzen dena, hemen hezkuntzarekin gertatzen da. Publikoa zer den, pribatua zer den, erdian zerbait ote dagoen, horiek biak gainditzetik ba ote dagoen... Hori da etengabeko eztabaida. Eta izango da, zeren neurri batean hori baita politikaren muina.

Jatorriz politika inguru batean, polis famatu horretan, jendea antolatzea dela esaten baldin badugu, botere harremanak gutxienez modu esplizitu batean antolatzeko, orduan antolatu egin behar da zer den pribatua eta zer den publikoa. Publikotasuna bera antolatzea da politikaren muina. Orduan, izan daiteke jende osoaren ordezkari antolatzea, jende osoaren boterea nolabait xurgatu edo hartuko duena eta gero zerbitzu batzuk emango dituen eta babesa, kontrola, ordena eta legea inposatuko dituen. Hori da aukera bat. Edo kontrakoa ere izan daiteke: boterea gure artean banatuko dugu eta ez da egongo aparatua berezirik edo egitura burokratikorik, baina antolatuta egongo gara gauza horiek egiteko. Garai batean hemengo partzuergoen eta herri basoen kudeaketa horrelakoa zen. Kudeaketa horretan ez zen sortzen aparatua berezirik, batzarrak egiten ziren eta partaide guztiak hartzen zuten parte. Delegazio formula batzuk bazituzten, baina zuzenean hartzen zuten parte eztabaidetan gehienetan. Azkenean, erabiltzaileen lana baliabide hori zaintzea zen. Eredu horretan

oso ondo ikusten da kasik oinarri prepolitikoa zela jendeak bere auzi komunak zuzenean eztabaidatzea eta modu orokor batean tratatzea. Hori da publikotasuna.

Edonola ere kontraesan pila bat dago eta bi zentzu horiek beti hor egon dira: estatuaren publikotasuna eta populazioaren, jendearen edo gizartearen publikotasuna.

Zuk zeuk zein publikotasun mota defendatzen duzu?

Niretzat publikotasunaren zentzu positiboa orokortasuna eta berdintasuna dira. Eta horren alde borrokatu behar dugu.

Orokortasunarekin batera beti argitasunak joan behar du. Horrengatik esaten dugu 'kontu publikoak agerian'. Pribatutzat jotzen dugun eragile batek ere bere kontu guztiak publiko egin ditzake eta kasu horretan argitasun osoz jokatzeko du.

Estatuari dagokionez, gaur egun asko idazten ari da estatu sakonari buruz. Hau da, ez bakarrik estatuen alderdi lizun edo beltzaz, baizik eta estatuen atzetik dagoen benetako estatuaz; estatu sakona, mundua gobernatzen ari dena. Horiek erabat pribatuak dira; erabat pribatuak eta opakoak. Ez ditugu ikusten. Orduan, ez dira publikoak. Horrengatik estatuen pribatizazioaren kontra borrokatu behar dugu, azkenean boterearen pribatizazioa delako.

Berdintasunari dagokionez, bai botere harremanetan eta bai justizian arbitrariotasunik ez izatea da gakoa. Guztiak izatea baliabide berdintasuna bizitzeko behar diren baliabideetan. Ez baliabide ekonomikoetan bakarrik. Berehala ikusten dugu baliabide ekonomikoen beharra mundu kapitalista honetan, begien bistakoa da. Baina bestelako komunitate batean biziko bagina, agian beharko genituzkeen baliabideak ez lirateke izango zuzenean ekonomikoak (horiek nolabait emanda izango genituzkeelako), baizik eta baliabide sinbolikoak edo bestelakoak.

Hemen, adibidez, oso argi dago baliabideetan herri gisa oso zeken edo zakar jokatzeko ari garela. Euskararen kasuan, esaterako. Herri gisa ez dakit irudikatzerik dugun

“Niretzat publikotasunaren zentzu positiboa orokortasuna eta berdintasuna dira. Orokortasunarekin batera beti argitasunak egon behar du. Berdintasunari dagokionez, bai botere harremanetan eta bai justizian arbitrariotasunik ez izatea da”

“Integrazioa baldin bada helburua, zehaztu dezagun non, zer eta nola. Integrazioaren atzean berdintasuna eta justizia baldin badaude, ez utzi hori eskolan bakarrik! Eskola inguruaren emaitza bat da. Eta integraziorik eta justiziarik ez dago gizarte bertan”



herri euskaldun bat, baina gutxienez elebitan biziko den herri bat irudikatzen baldin badugu, bistan dago hizkuntza horiek guztiontzako izan behar dutela eta guztiek eduki behar dutela baliabide hori. Orduan, ez dakit zer egiten ari garen eskolatan hizkuntza ereduaren historiarekin oraindik. Euskal Herrira zabaldu gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan serio pentsatzen baldin badugu euskara eta gaztelania izango direla hizkuntza ofizialak, herri hizkuntzak edo gizarte hizkuntzak, berdin zait ordena, ez dakit zer egiten ari garen jende askori baliabide hori ukatzen.

Agian gauza bat esaten da, baina utopia edo helburua beste bat da.

Bai, erretorika asko egiten da. Horrexegatik esan dut euskararen kasuan 'hau baldin bada esaten duguna eta hau baldin bada benetan pentsatzen duguna, ez dakit zer egiten dugun honekin'. 'Hau' baldin bada. Baina nik zalantzan jartzen dudana 'hau' da. Zeren bestela ez baitut ulertzen zergatik jarraitzen dugun horrekin. Horren burugabea iruditzen zait... Ez dut ulertzen.

Eta berdin beste kontu batzuekin. Badakit polemika eta hika-mika handia egon dela hitzarmenezko eskolen, ikastolen eta eskola publikoaren artean integrazioaren kontuarekin. Integrazioak guztien helburua izan behar du eta, hala izan dadin, zehaztu dezagun integrazioa non, zer eta nola. Integrazioa eta kohesioa aipatzen dira. Integrazioa baliabideak ematea baldin bada, justiziaz ari gara. Kohesioa berdintasuna baldin bada, berdintasunaz ari gara. Eta noski, integrazioaren atzean berdintasuna eta justizia baldin badaude, ez utzi hori eskolan bakarrik!

Integrazioarena gizarte osoan dagoen arazoa dela esan nahi duzu?

Bai. Zoritxarrez, jada kontu praktiko eta zehaztutan jarrita, eskola inguruaren emaitza bat da. Eta integrazioerik eta justiziarik ez dago gizartean bertan. Esaten ari dira, eta zentzu osoz, urbanistikoki ere izugarrizko banaketa dugula. Eta banaketa urbanistikoa ez da konponetzen babes bereziko etxeak eginez. Urbanismoa ez da gauza politak edo erabilgarriak egitea. Urbanismoa

gizartea egitea da, jendea egitea, herria egitea. Benetan hori egin nahi baldin badugu, eskolaren, herrigintzaren eta urbanismoaren (hirigintza esaten zaio) arteko harremana zein den pentsatzen hasi behar dugu eta nola konpondu behar diren integrazio kontuak arlo horretan ere.

Batzuetan ika-miketean sartzen gara eta galdu egiten dugu ikuspegi hori. Horrexegatik, gelditu, pentsatu eta begiratu behar da ondo. Eta hemen, nik esango nuke, oro har, gauzak ez direla ondo egiten ari.

Europara begiratuta, hezkuntza-sistema eredu askotarikoak daude: iparraldean gertuagoko gestioa dute, hegoaldean zentralizatua goa. Zein iritzi duzu eredu horien gainean?

Ezin da eskola bat antolatu atzean zein herri-estatu nahi dugun, jende artean nola biziko garen eta zer eraiki nahi dugun irudikatu gabe. Ez badugu irudikatzen hori, nahigabe atzetik hegemonikoa den eredu sartuko zaigu. Zeren hegemonikoa den eredu edo irudikapen hori gurea ere bada. Guri eragiten digu. Guk ere gurekin daramagu, nahiz eta batzuetan nahigabe izan. Horregatik, horren inguruan gogoeta egin behar dugu.

Garrantzitsua da historian zein eredu egon diren ikustea, baina historia politikoan. Eta nik esango nuke eskolaren historia politikoa xehe-xehe aztertu behar dela. Ez soilik eskolaren antolakuntza instituzionala, hori oso inportantea da, baina hezkuntza-sistemaren eta eskolaren ideien atzean egon diren kontzeptu politikoak ere bai. Ez dakit egiten den azterketa xehe hori.

Adibidez, frantziar estatuarena paradigmaticoa da. Frantziar estatua antolatu zen hurrengo egunetik kasik, iraultza ondorengo hurrengo egunetik, zabaldu zen eskola edo hezkuntza sistema. Eta eskola sistemaren lehendabiziko helburua ez zen pertsonaren garapena, ez, ez; nazioaren garapena baizik. Hau da, naziokideak sortzeko sistema zen eskola. Naziokide horiek herritar edo hiritar prestatuak izan behar zuten. Hots, sistema berri horretan,

nazio estatu horretan, kide gaituak izateko makinaria zen eskola.

Nahiko ikertua dago nola sortu ziren eskolak, ospitaleak eta abar. XIX. mendean oso argi zeukaten eskola ia-ia fabrika bat zela. Herritarren fabrika. Eta herritarren fabrika horretan hizkuntza bakarra zen nagusi, hizkuntza maila eta molde bakarra. Hizkuntzaren estandarizazioa berehalakoa izan zen. Uniformizazio orokor bat lortu nahi zen izateko moduan. Hori oso argi dago.

Orduan, helburu horiek edukita, hezkuntza-sistemaren antolakuntza ezin da izan tokian tokikoa. Estatuarena behar du, estatu zentralizatu batena. Eta gainera, oso egitura zentripetoa duena; hau da, oso argi zegoen zein zen zentroa, nola banatu eta helduko ziren aginduak, mezuak eta abar zentrotik, erdigune zera horretatik bazter guztietara. Finean, gorputz bakar bat sortzeko, nazioa.

Hori XIX. mendean. XXI. mendean zein izango litzateke eskolaren zeregina?

Esandakoari jarraiki, batetik eskola zerbitzu bat da; eta bestetik, makinaria edo fabrika ere bai, oraindik. Mila bider entzuten dugu eskola gizarte berri bat sortzeko tresna dela. Munduan aritzeko pertsona garatuak edo baliabide nahikotxodunak garatuko dituen, autonomo izateko gaitasunarekin eta abar. Hori batetik. Baina bestetik, oso argi dugu eskolaren bitartez lortuko dugula gure gizarte proiektuak garatzea. Zentzu horretan, eskolari euskararen salbazioa enkargatu diogu hemen, baita matxismoa edota patriarkatua bera garaitzea, garai batean oso agerikoa zen eta gaur egun gutxiago den bakea enkargatu genion, sexu hezkuntza, ingurumenaren zainketa... dena. Eta enkargatzen dizkiogun proiektu horiekin guztiekin, pertsona profesional batzuen eskuetan uzten dugu gaia, eta konponduko digutela pentsatu.

Alde batetik delegazioa, eta bestetik profesional horien itomena.

Itomena eta errete egotearen zera hori gaur egungo sindrome orokorra da. Ez gara bizi mundu honetan ez

bagaude errete. *Burn out*, itomen edo ezintasun hori orokorra da. Nik esango nuke jendearekin lan egiten den arlo guztietan. Baina, eskolan are gehiago horrexegatik, gainzama hori izugarria delako.

Nola irudikatzen duzu euskal hezkuntza-sistema? Zein da euskal eskolaz duzun utopia?

Hasteko, nik uste dut arazo larri bat dugula: batetik, ez da egongo utopia bakarrik; eta bestetik, nola antolatu utopia hori.

Utopia bakarrik ez dela egongo diodanean, esan nahi dut utopia hori eskolaren atzean egon diren utopien bertsio bat izango dela. Egon daiteke utopia bat gure kulturari eta hizkuntzari lotuta. Hori oso begien bistakoa izan da, batez ere horretarako debekuak egon diren garaietan. Edo Frankismoan ikastolak sortu ziren eta ez euskal ospitaleak. Zergatik? Batetik, kontzientzia argi bat zegoelako eskola behar zela hizkuntzari biziraupena emateko, eta bestetik, hizkuntzarekin lotuta zegoelako gure herritartasuna. Hori oso argi izan dugu eta nik esango nuke oraindik hori ez dela mugitu.

Baina beste aldetik, nola antolatu utopia hori? Hori ez dago lotuta eskolaren utopiarekin, herri utopiarekin baizik. Hau da, zer-nolako herria nahi dugun. Hor bakoitzak bere utopia, bere ideia, bere nahia, bere asmoa eduki dezake, baina agian adostu dezakegu. Eta neurri batean, hori da egiten dena: nola bizi, bakoitzak bere utopia egiteko. Noski, horrek esan nahi du batzuetan gatazkak izango ditugula, zeren utopia batzuk guztiz kontrajarriak baitira. Beste batzuetan bidea elkarrekin egiteko modua izango dugu. Hori beti egongo da eta gertatuko da eskolan ere.

Galderari helduz, nire iritziz, eskolaren utopiari dagokionez, erakar-garriena eskolaren desagitea da. Desagite horrekin ez dut esan nahi eskola desagertzen dela, ez. Baizik eta gizarte bizitzatik aparte dagoen sistema moduan desagertzen dela eskola, eta gure bizitzan eta gure arduetan integratzen dela. Hau da, denok izango ginatke hezitzaile.

“Denok gara hezitzaile, baina noski, gero eta gutxiago, gero eta harreman gutxiago dugulako. Harremanik ez badago, zuzeneko harremana batez ere, elkarrekintzarik eta elkarrekin egiten diren ekintzarik ez badago, ez dugu elkar hezten”

“Erabateko zabaltasuna duen eta elkartasun sareetan oinarrituta dagoen komunitate eredu bat behar dugu sistema neoliberal honetan. Niretzat oso garrantzitsua da auzo biziak. Gauzak kalean egin behar dira. Eskola eta kalea uztartu behar dira. Jaiak egin behar dira, urtebetetzeak kalean ospatu... Ahal bada publikotasun hori berreskuratu behar da, hori baita zuzeneko eta agerikoa den publikotasuna”



Nola integratu eskola gizartearen osotasun horretan? Nola integratu eskola-komunitatea jendarte guztian?

Hori da gutxienez irudikatu eta egin beharko genukeen ariketa. Horrexegatik esaten dut eskolaren desegitea, eskola berez aparatu moduan desegin egiten da gaur egun eskola-komunitatea den horretan, eta eskola-komunitatea desegin egiten da gizartea edo jendartea den horretan.

Zaila da hori irudikatzea ez badugu herri edo gizarte aldaketa bat irudikatzen. Hau da, benetan zaila da pentsatzea guraso ez direnek hezkuntzarekiko ardura zuzena sentituko dutenik. Zaila da, baina egin daitezke gauzak eta egiten dira. Adibidez, nire inguruan ezagutzen ditut eskola eta herria lotzeko eta zabaltzeko saiakerak, ingurune edo herri hezitzaileak.

Baina proiektu horietan ezintasuna beti berdina dela ikusten da: itome-

na. Denok bizi gara itota sistema honetan. Sistema honek jendea esplotatu egiten du. Jendearen denbora esplotatzen du. Eta ez daukagu horretarako denborarik. Errazena eta sinpleena, eta azkenean ondorio sistemikoa da eta horrexegatik bizi gara horrekin, dena bereiztea eta banatzea da. Hau da, umeak eskola jakin batera bidaltzea; ona edo txarra, baina eskola batera joango dira, gurasoek gero eta ardura gutxiago hartzen dute eskolan, guraso ez direnek ez dute uste beren kontua edo ardura denik, eta ildo horretatik, azkenean irakasleak bakarrik gelditzen dira. Profesionalak eta zerbitzuak.

Horretaz ohartuta hasi gara parte-hartzea eskatzen. Baina parte-hartzea eskatu egin behar da ala norberari sortu behar zaio?

Horretan ere nik teoriatik eta bizi-penetatik ikasi dut. Nik garaiak izan ditut, adibidez, pertsonalki. Eta in-

guruan ere ikusten dut hori; garaiak daudela, momentuak. Momentu batzuetan ez dakit zertan parte hartzen duzu zentzua ikusten diozulako, hau da, egiten duzun hori benetan eraginkorra dela ikusten duzulako. Berdin da zein den eragina, baina eraginkorra dela. Eta ez hori bakarrik, eragin horiek zuk sortu nahi dituzu, gainera. Eta hor zuk zerbait egin behar duzula ikusten duzu. Agian beste inork ez duela egingo, edo beste inori ez zaiola axola, eta momentu horretan baduzu motibazio hori.

Beste batzuetan oztopoak aurkitzen ditugu eta orduan ez da bideratzen, ez da askatzen eta ez da sortzen parte-hartze hori.

Baina kontrako aldea ere badago. Hau da, dekretuz ezarri nahi den parte-hartzea. Eta horrek ez du funtzionatzen. Hemen unibertsitatean parte-hartzean teknikoak ditugu eta parte-hartzeak dinamizatzen dituzte. Badakit ibili direla Euskaraldiaren kontuan dinamizatzen, edo ibili direla aurrekontu parte-hartzaileetan eta horrelakoetan. Herrigintza da hori ere, baina herrigintza teknifikatu bat, nolabait esateko. Dinamizatu egiten dute eta badakite goitik behera datorren dinamizazio horrek batzuetan ez duela funtzionatzen. Jendea benetan ez dagoela motibatuta nahiz eta oso kontu garrantzitsua izan beren bizitzan. Alde batetik, ez dutelako ikusten, ez delako sortu beren beharretatik; eta bestetik, eragin horiek ez dutela zentzurik edo ez direla benetan gauzatuko ikusten dutelako. Dena dela tranpa bat-edo.

Gaur egun erakundeen aldetik legitimatzeko erabiltzen da parte-hartzea. Legitimazio gabezia ikaragarria daukate. Eta hori badakite. Gaur egun hauteskunde bidez eta ordezkaritza horren bidez bakarrik ez da nahikoa. Horrekin bakarrik ez da lortzen legitimazioa.

Azkenean, legitimazioa atxikimendua da; erakundeekiko atxikimendu bat eta pentsatzea erakunde horiek zureak direla eta zu zarela erakunde hori. Nork sinesten du ‘ni naiz Eusko Jaurlaritza’? ‘Ni naiz Foru Aldundia’? Bada horrexegatik bota behar ditu mezuak Foru Aldundiak. Ez bakarrik ogasunaren kontuan,

denean baizik, eta marketina egin behar du hori sinestarazteko eta sentiarazteko.

Orduan, legitimazioa lortzeko modu bat mezuak botatzea da, eta bestea parte-hartzea. Baina berriro diot; goitik beherakoa baldin bada, eta ikusten baldin baduzu, gainera, bitartekari “teknifikatu” batzuk daudela tartean, denak lagunduko du prozesu horrek kale egin dezan.

‘Denok gara hezitzaileak’ esaten da. Zer behar da esatetik izatera pasatzeko?

Elkar hezten dugu, gaur egun horrela da, baina kontzientzia hartu barik. Nahigabe eta ardurak gaitetik kenduta. Nik uste dut hezitzaile izateko zuzeneko harremana izatea dela garrantzitsuena eta hor ditugula lanak.

Familia guztietan ari zaigu gertatzen. Seme-alabak eredu jakin batean hezteko ezintasuna ikusten ari gara. Guk arauak jarri eta kontsentuatu ditzakegu edo horretaz hitz egin dezakegu, horretan eskuzabalak, ulerkorrek edo nahi duzun modukoak izan gaitezke. Baina, aldi berean, gazteek pantailen aurrean, eta berdin zait zein pantaila, gurekin berbetan baino ordu gehiago pasatzen dituztela ikusten dugu. Eta eskolan ere fenomeno berbera gertatzen ari da. Leku guztietan. Orduan, nor da hezitzailea? Denok gara hezitzaile, baina noski, gero eta gutxiago, gero eta harreman gutxiago daukagulako.

Harremanik ez badago, zuzeneko harremana batez ere, denborarik ez badago, elkarrekintzarik eta elkarrekin egiten diren ekintzarik ez badago, hezitzaile tasa hori nolabait jaitsi egiten da. Gero eta gutxiago hezten dugu elkar. Ez dugu elkar hezten eta ez dugu elkarrengandik ikasten.

Denbora gabezia eta abiadura. Horrek harremanak eta komunitatearen zentzua aldatzea ekarri duela esango zenuke?

Bai, erabateko abiaduran bizi gara. Batzuk esaten dute abiaduraren kapitalismoan bizi garela. Hau da, abiadura dela dena azaltzeko behar dugun kontzeptua. Abiadura da dena.

Eta horrek komunitate zentzua erabat aldatu du, bai. Lehen denboran zeharreko komunitateak zirenak, denboran ondo umotuak, ondo helduak, ondo oinarrituak eta ondo indartuak ere desegin egin dira.

Oso zaila da, dena den hori mantentzea. Nik aspalditik galdetzen diet lehenengo mailetakoa ikasleei zertan egiten zuten lan haien aitona-amonek. Eta gehienetan ez dakite. Ideia hori erabat lausotu da. Belau-naldien artean dagoen komunikazioa oso traketsa da eta neurri batean lotsagarria da. Zaharra izatea ez da ona. Eta zaharren kontuak ez dira interesgarriak. Ez dute balio. Hori batetik.

Eta bestetik, lehen denboran ondo garatutako eta sendotutako komunitate horiek, orain asko jota espazioan agertzen dira. Baina denbora gutxikoak dira. Komunitate ideia berri bat dago. Komunitate oso erabilgarriak izan behar dira, helburu jakin baterako. Eta ez badute balio, agur. Orduan, lotura gogor haiek desagertu dira, bai. Orain, bestelako loturetan eta harreman modu berrietan gutxienez lehenengo idealak eta niretzat ezinbestekoak diren balioak (elkartasuna, begirunea, berdintasuna eta justizia) nola gauzatu ikasi behar dugu. Eta hori da hor dagoen dema nagusietako bat.

Prekariatateak ez du batere laguntzen. Egitura asko daude airean: familia, lagunak, lana, etxebizitza... Nola lortu horri gorputza ematea?

Bai, ados nago eta nik ere erantzunik ez dut. Gaur egun, ikusten ari gara likidotasan edo gaseosotasun hori gure mundua ulertzeko tresna bat dela, gure bizitza horrelakoa jotzen dugu. Gure bizitzak iheskorrek eta iragankorrek dira, oso ahulak eta babes gogorak eta egonkorrek eskatzen ari gara. Baina beste aldetik, sistema oso gogorra eta astuna daukagu gainean, harriak baino astunagoak, irmoagoak eta egonkorragoak diren logika batzuekin. Eta zama hori gero eta gainerago daukagu. Zergatik? Hemen egon den elkartasun sarea (lehen esan dugun komunitatea) desegin egin delako. Orduan, kasik bakarrik geratu gara

sistemaren kontra. Harri hori gure gainera dator. Hau da, lehen babes bat bazegoela sentitzen genuen. Babes hori jendea zen, gure arteko babesa: familiak, komunitateak, auzoak, herriak...

Baina momentu batean hori joan egin da eta banaka eta zama hori gainean dugula geratu gara. Askotan esaten da hori dela hain zuzen neoliberalismoaren ezaugarri bat: sistema horren, merkatu basati horren, eta pertsonen artean zegoen babesa desegitea.

Lehengo komunitate eredura bueltatu beharko genukeela uste duzu?

Ez. Lehengoak sortzearekin amets egiten badugu, tranpa egingo diogu geure buruari. Zeren azken finean kapitalismoaren beste fase batean edo gizarte prekapitalistetan zeuden harreman ekonomiko eta produktibo batzuetaz ari gara eta horiek ez dira itzuliko. Garai hartako komunitate ereduak ez dute balio garai berrietarako.

Zein komunitate eredu da sistema neoliberal honetan balioko lukeena?

Erabateko zabaltasuna duena eta elkartasun sareetan oinarritua. Elkartasuna behar-beharrezkoa dugu. Elkartasun sareak gauzatu behar dira, hori oso argi daukat.

Egoera sozioekonomikoa merkatu neoliberallean zatituta dago erabat. Horrexegatik, saretze hori ez da etorriko berez, ez da objektiboa edo mekanikoa izango. Sortu egin behar dugu. Eta lan hori txikian eta handian egin behar da. Ez bakarrik txikian, eta ez bakarrik handian. Auzoan egin behar da, herrian egin behar da. Niretzat oso garrantzitsua da, eta gero eta gehiago eta baita eskolan ere, auzo bizitza. Auzo bizitza zentzu zabalean, ez zentzu fisikoan bakarrik. Esan nahi dut, zure inguruan daudenekin bizitzea. Eta gauzak kalean egitea. Bai, gauzak kalean egin behar dira. Eskola eta kalea uztartu behar dira. Jaiak egin behar dira, urtebetetzeak kalean ospatu... Ahal bada publikotasun hori berreskuratu behar da, hori baita zuzeneko eta agerikoa den publikotasuna.

KRISTAU ESKOLA

2019-2020
URTEA



HEZKUNTZA BALIOTSUA, ETA BALIQUETAN OINARRITUA

Kristau Eskola Euzkoako Kristau Hezkuntza erria jostun-erakunde da, eta hezkuntza-erria bereziki Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza, 18. artikuluan zehaztu da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da. Hezkuntza erria Hezkuntza Departamentuaren erabileraren inguruan da.

2016. gada 20. oktobris Nr. 10
Izdevums: 1000 kopiju
ISSN 1628-3542

2016. gada 20. oktobris ir īpaši svarīgs, jo šajā mēnesī notiek vairāki pasākumi, kas ir svarīgi visai Latvijas sabiedrībai. Šajā numurā jūs atradīsiet visu, kas ir aktuāli šobrīd, un arī daudz interesantu informāciju par notiekošo. Šajā numurā ir raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību. Šajā numurā ir arī raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību.

Šajā numurā ir raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību. Šajā numurā ir arī raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību.

Šajā numurā ir raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību. Šajā numurā ir arī raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību.

Šajā numurā ir raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību. Šajā numurā ir arī raksts par Latvijas valsts valodas likuma izstrādi, kas ir svarīgs pasākums, kas ietekmēs visu Latvijas sabiedrību.



KRISTAU ESKOLA

Latvijas Republikas
Iekšlietu ministrija

Latvijas Republikas Iekšlietu ministrija
Izdevums: 1000 kopiju
ISSN 1628-3542

EKARPENAK

IKASLEEN EUSKARAZKO HIZKUNTZA GAITASUNAK INDARTZEKO AHALEGINA

D ereduan euskara berpiztu nahian

D ereduko ikastetxe batean euskararen erabilera berpizteko irakasle talde batek egindako ahalegina jasotzen da ondorengo esperientzia honetan. Izan ere, D ereduko ikastetxe zenbaitetan arazoak atzeman dituzte ikasleen euskara erabilera ziurtatzeko. Bittor Hidalgo irakaslea izan da esperientzia hau gidatu duena, eta Donostia inguruko ikastetxe batean egin dute. Ikasle guztien euskarazko hizkuntza gaitasun aktiboak zein pasiboak zabaltzea izan dute helburu, eta baita beraien euskara erabilera eta ulermen gaitasunak indartzea ere. Txostenaren laburpena egin du Hik Hasik artikulu honetan.



Bittor HIDALGO

Bigarren Hezkuntzako irakaslea

Dereduko ikastetxeetako ikasleek, euskara izan beharko lukete ikastetxeko komunikazio, ikasketa eta laneko hizkuntza. Hori da teoriak esaten duena, baina bestelako errealitate batekin topatu naiz Gipuzkoan lan egitea tokatu zaidan D ereduko hiru ikastetxetan. Jaurlaritzak aipatzen du Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean bi hizkuntza ofizialak aukera berdintasunez eta praktikotasunez erabil-

tzeko xedezko neurriak eskainiko dizkiela ikasleei, eta euskara-giroa bermatuko duela. Nolabait, gure gizarteak, batik bat gizarte euskaldunak, bizi duen desoreka linguistikoa orekatzeari keinu egiten dio horrek. Baina nire galdera da: etxetik euskara ez dakarren ikasleak, non garatu behar du ahozkoa, eskolan ez badauka horretarako aukerarik? Eskolak berdindu beharko luke nolabait, ikasleek dakarten desoreka linguistiko sozial-familiarra. Baina nola egiten da hori?

Galdera horiei erantzunak aurkitzeko eta ikasle guztien euskara erabilera eta ulermen gaitasunak indartzeko asmoz, esperientzia oso bat garatu dugu Donostia inguruko D ereduko ikastetxe batean, lehen ikastola izandakoa eta gerora publikatua. Ikastetxean euskararekin genituen arazoak detektatzeko diagnostiko bat gauzatu genuen lehenengo eta behin. Horrekin, ikastetxeko komunikazio, ikasketa eta laneko hizkuntzaren inguruko arazoak eta egoerak izendatu genituen eta emaitza nahiko edo oso gordinekin topatu ginen:

- Ikasleek ez zuten beraien artean “inoiz” egiten euskaraz ikastetxean, ez gelaz kanpo, ez gela barruan ere, eta ezta salbuespenez ere.
- Ikasleak irakasleei zuzendutakoan ere, 10etik 8 edo 9 alditan espainolez zuzentzen zitzaizkien.
- Orokorrean etxetik euskara zekarten ikasleek (% 7 inguruk euskara bakarrik, % 30 ingu-

ru dira euskara eta espainola batera izan dituztenak etxean), euskara ezkututzen zuten beste ikasleen aurrean.

- Ikasleek soilik erabiltzen zuten ahoz euskara, derrigorrean irakasleari edo ikasgela aurrean, ikasgai azalpenen bat egin behar zutenean “notarako”, edota azterketa idatzietan.

Irakasleei dagokionez, egindako diagnostikoan jaso dugu irakasle gehienok (% 80 inguruk) gehienetan besterik gabe jarraitzen dizkiegula ikasleei beraiek espainolez hasitako elkarrizketak, irakasleok beti, edo gehienetan behintzat, euskaraz erantzuten diegun arren. Horrekin batera, zenbait irakasle aitortu dute (ia % 20k), “tarteka” espainolez ere egiten dietela ikasleei, “ikaslearen arabera, edota egoeraren arabera, besteak beste”.

Modu horretan, ikusi dugu euskara etxetik edo kanpotik dakartenek, oro har, nahikoa euskara maila ona eskuratu ohi dutela. Ildo beretik, familia edo ingurunetik soilik espainola dakarten ikasleek, eta berez hizkuntzetako erraztasunak dituzten ikasleek, nahikoa euskara maila ona lortu dezaketela ikastetxean, nahiz eta askotan hizkuntzaren ezagutza pasiboa soilik landu. Aldiz, familiatik eta ingurunetik soilik espainola dakarten ikasleek, eta hizkuntzetako erraztasunak ez dituztenek, arazo handiak izan ditzaketela uste dugu beren euskara mailarekin. Hizkuntza beste arlo guztietako jakintzari heldu ahal izateko ezinbesteko oinarria dela kontuan hartzen badugu, ezinbestekoa da hiru multzoetako ikasleen euskararen erabilera aktiboa indartzea, hizkuntza sormen gaitasuna, bai ahoz eta bai idatziz, oro har, lehen multzoko euskara hizkuntza gaitasun maila berdintzeko.

Hortik abiatuta, gure lana ikastetxe-ko bi hizkuntza batzordeen ingurutik eratu genuen: Bata Hizkuntza Normalkuntzako Batzordea, jada aurreko ikasturteetatik lanean ziharduenaren jarraipena izango zena; eta bestea, Hizkuntza Proiektuko Batzordea, berria, eta Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua prestatzea helburu izan-

go zuena, ikastetxeko kide guztion inplikazioa bilatzeaz eta hausnarketetan parte hartzea sustatzeaz arduratuko zena. Eta oinarritzko hiru helburu finkatu genituen:

1. Lortu, ikasleak beti euskaraz egin diezaion irakasleari eta ikastetxeko beste langileei.
2. Lortu, ikasleek hizkuntza aktiboa askoz gehiago erabiltzea ikas-arlo guztietan.
3. Lortu, ikasleek beraien arteko interakzio guztiak euskaraz egitea ikasgela barruan.

Kolektibo guztien inplikazioa helburu

Esparruak eta helburuak finkatuta, urte askotako inertziak mugitu beharko genituela jakitun ginen, eta bagenekien ez zela nahikoa izango ikasleei eta irakasleei, besterik gabe eta beste behin, esatea zer egin behar zuten aldatu zitzaten beraien hizkuntza jarrerak gaueetik goizera. Eta inolako neurriak hartzen hasi aurretik, ikastetxeko irakaskuntzarekin lotura zeukaten eragile guztien inplikazioa lantzeari ekin genion. Ikastetxeko hiru giza multzorekin aritzea erabaki genuen: ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin. Hiruretan eragiteko sentsibilizazio faseak abian jarri genituen.

Irakasleekin gaia lantzeko galdetegi bat prestatu genuen. Hausnarketarako bidea irekiko zuen galdetegi bat prestatu genuen ikastetxeko DBHko hizkuntzen trataera oinarri hartuta, eta klaustro bat baliatu genuen gaiaren inguruko kezken lanketa egiteko. Irakasleen aldetik parte-hartze altua lortu genuen, irakasle taldearen % 97,5k erantzun zuen galdetegia.

Ikasleekin, berriz, hainbat izan dira lanketarako baliatu genituen estrategiak. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak *Ulibarri* programaren barruan diseinatutako *Branka* galdetegia landu genuen eta tutoretza saio bana egin genuen horretarako. Aldi berean, gaiaren gaineko hausnarketa nor bere familiara eramateko asmoz, bi lan eskatu genizkion ikasle bakoitzari. Beste bi galdeketa egiteko ardura hartu behar zuen ikasle bakoitzak. Horrela planteatuta, gurasoen erantzunak jasotzearekin

Ikastetxeko ikasketa, komunikazio eta laneko hizkuntzaren inguruko arazo eta egoerak izendatu genituen eta emaitza nahiko gordinekin egin genuen topo. Ikasleek ez zuten “inoiz” euskaraz egiten beraien artean, ez gelaz kanpo eta ezta gela barruan ere.

batera, gurasoen eta seme-alaben artean ikastetxeko hizkuntza erabileraren inguruan interakzioa sustatzea nahi genuen. Modu horretan, gaia ikastetxeko eremutik ateratzea nahi genuen eta familia barrura eramatea. Horrekin batera, ikasleen ordezkari-tza talde antolatuekin lan egiten hasi ginen, ikasleen ordezkarien batzordearekin eta ikasleen euskara batzordearekin. Aldi berean, gure ekinbideekin ikasleen artean lortzen ari ginena, lortu genezakeena edo eragin eza neurtu nahi genituelako. Tutoretza saioak ere egin genituen eta horietan galdetegiak pasatzearekin batera, hizkuntzaren inguruko kezken inguruko eztabaida saioak egin genituen ikasleekin. Eta amaitzeko, ikastetxeko hizkuntza egunen festen inguruko gogoeta saioak antolatu genituen. Dinamika horrekin ikasleek munduko hizkuntzen inguruko ikuspegi zabalagoa, globalagoa antzematea landu nahi genuen, euskara-espainola dikotomiatik harago.

Hirugarren multzoa gurasoena izan zen eta, batez ere, ikasleen bidez egin genuen horiekin lanketa. Uste dugu ideia ona izan zela ikasleek gurasoei pasatzea galdetegiak. Izan ere, gaiaren inguruko kezkek eta haus-

EKARPENAK: D EREDUAN EUSKARA BERPIZTU NAHIAN

narketak familien barnera eramateko dinamika ona izan zen eta gurasoen % 75ek baino gehiagok erantzun zuten. Ildo beretik, gurasoengana iristeko bide gehiago ere erabili genituen, hala nola, ikastetxeko gurasoen batzordeak, inguruko auzo-elkarteak edota Udaleko Euskara saila.

Hausnarketa eta galdetegien emaitzak

Behin galdetegiak pasata eta erantzunak jasota, emaitza guztiak sistematizatzea zegokion Hizkuntza Batzordeari eta hortik abiatuta ekin genion kolektibo bakoitzarekin bigarren hausnarketa faseari. Irakasleekin prozesuaren emaitzak lantzeko, behin betiko hausnarketa eta neurri proposamena egiteko, Mintegi eta Hausnarketarako Gida bat prestatu genuen. Bereziki irakasleekin hiru puntu jorratzea interesatzen zitzaigun. Batetik, zein zen irakasle eta ikastetxeko langileok hartu beharreko jarrera, bateratua eta adostua, ikasleek gurekiko zerabilten espainolezko jardunen aurrean. Bestetik, nola eragin ikasleen arteko jardunak gure ikasgaietako talde eta lanetan euskarazkoak izan zitezten. Eta hirugarrenik, bereziki landu nahi genuen irakasleekin zein hizkuntza lanketa egin beharko genukeen ikasgai bakoitzean hizkuntza gaitasun egokienak lortzeko.

Ikasleekin egin beharreko jarduna prestatzeko, ondoko bi ideia hauen inguruan egin genuen hausnarketa: batetik, galdetegien bidez ikasleen jarrera zein zen ezagutu nahi genuen, batez ere, beraien ustez ikastetxean eduki beharreko hizkuntza jarreraren gainean. Eta bestetik, seme-alaben bidez gurasoei pasatako galdetegiaren emaitzak ondo aztertu nahi genituen, lan-taldeak zituen asmoek aurrera egiteko familien aldetik zenbaterainoko laguntza izango zuen ezagutzeko. Laburbilduz, ondoko grafikoetan ikus daitezke bi kezka nagusi horien inguruan jasotako emaitzak zein izan ziren.

Datu horiek ikusita, pentsatzekoa da guraso horiei azaldu behar izatea euren seme-alaben euskarazko jarduna irakasleekin gela barruan ez dela ez beraiek espero zutena (% 90,2) eta

Grafikoa 1. Ikasleei galdetuta: Nola uste duzu hitz egin beharko zenukeela ikastetxean?

	Euskaraz	Nahi duzun hizkuntzan
Ikasgelan		
Irakasleari	% 91,5	% 8,5
Beste ikasleekin lanean ari zarenean	% 70,2	% 29,8
Ikasgelaz kanpo		
Irakasleari (eta langileei)	% 62,5	% 37,5

Grafikoa 2. Gurasoei galdetuta: Nola uste duzu(e) hitz egiten duela zure/zuen seme/alabak ikastetxean?

	Euskaraz	Nahi duen hizkuntzan
Ikasgelan		
Irakasleari	% 90,2	% 9,8
Beste ikasleekin lanean ari zarenean	% 26,2	% 73,8
Ikasgelaz kanpo		
Irakasleei (eta langileei)	% 80,1	% 19,9

ezta seme-alabek aitortutakoa ere (% 86,5). Eta horra hor paradoxa: Zertara bidaltzen dituzte orduan guraso horiek beren seme-alabak D ereduko ikastetxera. Ez badute egiten euskaraz ikastetxean? Bakarrik irakasleei euskaraz entzutera? Testuliburuak euskarazkoak izan ditzaten?

Neurri proposamenak

Behin kolektibo desberdinen erantzunak jasota, euskararen erabileraren inguruko aurreranzko neurriak ezartzen hasteko garaia iritsi zen. Ondorengo lau ideia nagusitan oinarritu ginen horretarako: Batetik, ikasleei erakutsi nahi genien eurek erantzun zutela galdetegian nahi zutela euskara erabiltzea eskolan (% 91,5ek irakasleari; % 70,2ek beste ikasleei gelan-edo lanean ari direnean; eta % 62,5ek ikasgelaz kanpo irakasle eta ikastetxeko langileei). Bigarrenik, ikasleei jakinarazi nahi genien euren gurasoek zer-nolako erabilera nahiko luketen egitea ikastetxean (% 98,5 irakasleari; %92,4 beste ikasleekin ikasgelan; eta % 94,6 ikastetxean

ikasgelaz kanpo). Hirugarrenik, ikasleei erakutsi nahi genien zein neurritan zituzten “engainatuta” euren gurasoak, erabileraren inguruan egiten zutenaren eta aitortzen zutenaren gaineko datuak oso bestelakoak zirelako. Azkenik, gurasoentzat seme-alabek euskaraz ondo ikastea zeinen garrantzitsua zen ikusarazi nahi genien, beraien etorkizuna ziurtatu ahal izateko (%96,2). Modu horretan, proposamenarekin lanean jarraitzeko bi neurri zehatz izendatu genituen:

- Irakasleari beti euskaraz, gela barruan eta gelaz kanpo.
- Ikasleei beti euskaraz gela barruan behintzat bai.

Eta prozesua borobildu genuen, mezu argi honekin: “Bai euskaraz, gela barruan beti”.

*OHARRA:

D ereduan euskara berpiztu nahian – Esperientza baten kontaketa DBHn Bittor Hildalgok egindako txostena bere osotasunean www.hikhasi.eus webgunean argitaratuko da datozen egunotan.

hh

hik hasi

Bidaia pedagogikoa KATALUNIARA

Apirilaren 23tik 27ra

Aurreko urteetan **Estonian, Finlandian, Reggio Emilia** edota **Kuban** izan ondoren, 2019ko udaberrian Kataluniara egingo da bidaia. Bertako hezkuntza-sistemaren nondik norakoak ezagutzearaz gain, 0-3ko nahiz HHko, LHko eta Bigarren Hezkuntzako eskola eredu garriak bisitatuko dira.

- ROSA SENSAT ELHARTER ETXEA ESCOLA NOVA 21 EGITASMORA
- IDAQUIM RUYRA ETXEA LA MAQUINISTA MASTETXEAK
 - INCINT VERDAGUER INSTITUTUA
- CADI HAUR ESKOLA ETXEA FAMILIA-GUNEA, ETAB.

Informazio osoa eta izen-ematea **otsailaren 11tik aurrera**
www.hikhasi.eus helbidean



GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

2009an sortutako erakundeak dira. **Bizirik!**

ANALTEI ERRETA
ADUNA
KITEA
AIZARNA
AIZARNAZABAL
ALBERTO
ALZADA

ALDO
ANDUEZAR
ARRISA
BARRONI
BIDAKIA-GOIKO
BERROZU
BERKIZIL

KERIO-ETXARO
GARINI
TIELDO
IKASTROITZA
ITSASORNO
LARRAUL
LIZARTEA

DIXIA
OLARROKUA
ZOLA IN
ZIZERKIL
SURIETA



www.eskolatxikiak.eus

PEDAGOGO SORTZAILEAK

Elbira Zipitria

Pedagogo sortzaileak izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta ikasturte honetan emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskutik. Elbira Zipitriaren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan hamargarrena.

Elbira Zipitria Irastortzak, isilpean eta ausarki jokatzuz, Gipuzkoako lehen euskal etxe-eskola sortu zuen frankismoaren urte beltzenetan. Abertzalea, euskaltzalea, kristau fededuna eta klase-kontzientzia handikoa, Ikastolaren hazia eta Euskal Eskolaren 36ko gerra aurreko eta gerra ondorengo mugimenduaren lokarria izan zen.

Andereñoa, pedagogo, idazlea, politikaria eta hizkuntzalaria izan zen. Ekarri oparoa egin zuen jorratu zituen arlo guztietan. Aipagarria da



Arantxa URBE

Irakaslea eta
Hik Hasiko kidea

euskal gramatikari egin ziona, NOR-NORI-NORK terminoen asmatzailea izan baitzen.

Hainbat ohar bibliografiko

Zumaiako (Gipuzkoa) Narrondo auzoan jaio zen, 1906ko maiatzaren 28an.

Muñoatarren ikastolan hasi zen lanean 1926an, Donostian. Garai hartako eskoletan, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa zen. Gai horrekiko zuen sentsibilitateaz gain, Emakume Abertzale Batzako (EAB) kidea zen. Handik, etengabeokak ziren euskal eskolen eraikuntzalanetan parte hartzeko deiak. Emakume ugari erantzun zioten deiarri: Zipitriarekin batera, Julene Azpeitiak, Madeleine Jauregiberrik, Robustiana Mujikak eta Maritxu Ituarte, besteak beste.

EABk indar handia hartu zuen, eta haren itzalean emakume haiek egin zuten lana ezinbestekoa izan zen ikastolak sortzeko eta indartzeko. Hala, Eusko Ikastola Batza (EIB) eratu zuten. Baina 36ko gerrak dena zapuztu zuen: euskararen irakaskuntza debekatu zuten, eta euskararen gaian buru-belarri murgilduta zebiltzanak zigortu egin zituzten.

Sarara (Lapurdi) erbesteratu zen. Han, berehala hasi zen eskolak ematen labaiendarren etxean. Hantxe ezagutu zuen Joxemiel Barandiaran, eta gustuko zituen Frantziako korronte pedagogiko berrietatik edateko aukera izan zuen.



Erbestetik Donostiara itzuli zenean, 1942an, ikastolaren bigarren aldia antolatzeari ekin zion. Ikasle bakarrek hasi zen, Down sindromea zuen Mielmari Egiarekin. Hurrengo urtean, Arriola sendagilearen etxean aritu zen, lau ikaslerekin. Euskal kulturaren alde egiten ari zen lana gero eta ezagunago bihurtzen joan zen, eta azkar aurkitu zituen ikasleak kezka hori zuten familia ezagunen artean.

Etxez etxe ibiltzeari utzi, eta Donostiako Fermin Kalbeton kaleko 26 zenbakiko 2. solairuan zuen etxean ireki zuen ikastola, isilpean. Gehienez, 10 neska-mutileko taldeak izaten zituen. Alde batetik, talde txikitlan egin nahi izaten zuen, eta, beste alde batetik, garaiko legediak kopuru horretako taldeak eskola partikular gisa baimentzen zituen. Bere etxe hartan 20 urtez aritu zen lanean, eta sarri izaten zituen ikuskarrien eta polizia bititak. Urte horietan guztietan asmatu, landu eta garatu zuen bere metodoa.

Ikasleek 9 urte bete ondoren, gaztelaniako ikastetxeetan jarraitu behar izaten zituzten ikasketak: Zipitria arduratzen zen eskola horietarako sarrera-azterketa prestatzeaz, 8 eta 9 urteko ikasleei gaztelaniako eta frantseseko gramatika irakatsiz.

Iluntzean, berriz, ikasleen gurasoen euskara sakontzen zuen gau-eskolan.

Ondoren, 1949an, irakasle berrien prestakuntzari ekin zion, beste lan-ildo bat zabalduz: euskal andereño gazteen prestakuntzaz arduratu zen. Ekimen berri hori ere bere etxean ga-

ratu zuen. ORIXE ikastola sortu zuen gero, 1969an, beste hiru andereñoekin, Donostiako Alde Zaharrean.

Erabat murgilduta zegoen euskararen irakaspenean. Ikasleek euskararen alorrean egiten zituzten aurrerapenak jendaurrean azaltzeko erakustaldiak antolatu zituen, eta egunkariek ere eman zuten horren berri. Ikasleak Mañura (Bizkaia) eramaten zituen trenez, 100 urteko amamarekin egotera, hark euskaraz nola egiten zuen ikasleei erakusteko.

Euskararen gaineko kezka handia zuen. Lazkaoko (Gipuzkoa) beneditarrei euskarako eskolak ematen aritu zen bi urtez. Beneditarrek asko goraiatu zituzten ikastaro haiek, eta, batez ere, aditzaren gainean egin zituen ikerketak. Ondoren, beneditarren komentu hori euskara ikasteko eta sakontzeko gune garrantzitsu bilakatu zen.

Euskal gramatikari egin dion ekarri nagusia NOR-NORI-NORK terminoen asmakuntza izan da. Haren ikasle izan zen Antton Valverde kantari ezagunaren aitak tresna bihurtu zuen *aditz-gurpila*, eta oparitu egin zion. Gurpilak sekulako eragina izan du euskararen hedapenean, izugarri erraztu baitu aditzaren ikaskuntza.

Euskara batuaren kontrakoa zen, ordea. Herrietan, batuaren aldeko mugimendua hasi zenean, herriko euskara sustatu zuen, euskara bateratzeko egiten zen proposamenaren aurrean: *“izpirituak bizitza dakar, letrek il egiten dute”* zioen.

Batuaren nagusitasuna ikastolaren legeztatzearekin lotzen zuen. Horren eta H letraren ezarpenaren aurka borrokatu zen. H-aren erabilera-arauak onartzeak eta jendeak barneratzeak ondorio zuzenak izan zituen haren osasunean.

Idazle gisa, *Ira* goitizenez sinatzen zituen bere lanak. *El Dia* egunkariko *euskal orria* atalean idatzi zuen, baita ARGIA eta beste hainbat argitalpenean ere.

Haurrentzako antzerki-lanak eta ipuinak idatzi zituen: *Leoi-kumea*. Paris, 1948, esaterako. Euskal Idazleen Federazioan eta euskaltzaleen jardunaldietan aritu zen, bestalde.

Zipitriak harreman estuak izan zituen garaiko euskal kulturako aditue-

kin: Orixe, Joxemiel Barandiaran, Telesforo Monzon, Resurreccion Maria Azkue, Tene Mujika, Faustina Carril, Koldo Mitxelena, Nemesio Etxaniz, eta Manuel Lekuona, esaterako.

Elbira Zipitriak Irastortza Donostian hil zen, bakarrik, 1982ko abenduaren 26an.

Asko gustatu zitzaion munduari begiratzea; ez zuen jakin, ordea, berak hainbeste borrokatu eta defendatu zituen ildo berri haietan aurrera egiten. Bere ideietan itxi eta itsutu zen. Jokaera horrek kontrako jarrera eta sentimendu asko sorrarazi zituen. Hala ere, ezagutu zuten askok maitatu zuten. Eta ezagutu zuten guztiek Zipitriari asko zor diotela diote, eta Euskal Herriak ere asko zor diola.

Zipitriaren hezkuntza-ereduaren oinarriak

Haren lehen urratsa eskola desberdina egitea izan zen; horretarako, teorizazio pedagogiko sakonetatik abiatu beharrean, saiatu zen hizkuntzak, kulturak eta tradizioaren aldeko konpromisoak eta eguneroko jarduerak planteatzen zizkieten hainbat arazori aurre egiteko erantzun praktikoak ematen. Horren ondorioz, haren pedagogia-estrategiez, teknikez eta baliabidez beterik dago. Hastapenean, hezkuntza eta hezkuntza-prozesua ulertzeko modu bat dago.

Elbirak irmoki sinetsi zuen haurraren izaeran eta dituen ahalmenetan. Haren ustez, haurraren izaera hori uholdearen gisakoa da; haren indarra bideratu behar da, baina hezkuntzak ez dio indar horri kontra egin behar.

**Elbira Zipitriak,
isilpean eta ausarki
jokatuz, Gipuzkoako
lehen euskal etxe-
eskola sortu zuen
frankismoaren urte
beltzenetan.**

Eskola-eredu tradizionalarekin puskatu behar zela sinetsi zuen. Zipitriak neskak eta mutilak elkarren ondoan hazi zituen, berdintasunez. Pedagogia eta metodo berritzaileenak aplikatu zituen. Irudimena eta jakin-mina ziren bitartekoak baliabide didaktikoen falta gainditzeko. Eta hori guztia euskaraz egin zuen.

Bestalde, eskola berriaren beharra aurrean zuela, aukera metodologiko bat bilatu behar izan zuen, tresnatzat hizkuntza bat hartuta.

Haurtzaroari buruz zuen ikuspegi dinamikoaren arabera, haurraren gaitasuna eta haren lorpenetara bideratu zuen hezkuntzaren indar guztia: lehenik eta behin, zenbait eskuratze-prozesu *desintelektualizatu* egin behar ziren; gero, ikasteko metodo natural bat bilatu behar zen, haurrari eskolan bizitzan bezala ikasteko aukera emango zion metodo bat, alegia.

Horren ondorioz, jarraibideak zehaztu zituen; haur txikiak ibiltzen eta hitz egiten ikasten zuen eran ikasi behar zuen haur nagusiak irakurtzen eta idazten. Beraz, metodoak haurraren jardura zuen ardatz; hots, txikiak ibiltzen ibiliz eta hitz egiten hitz eginez ikasten zuen era berean, geletako haurrek marraztuz, idatziz edo irakurriz ikasten zuten marrazten, idazten edo irakurtzen.

Zipitriak proposatu zuen lana

teknikaz eta baliabide didaktikoz lagunduta zegoen: kideen arteko kidesuna, zotzak, puxtarriak eta makilak erabiltzea, esate baterako. Teknika eta baliabide didaktiko horiek egin zioten ekarpenik handienetako bat, hain zuzen, eskola aldatzeko prozesuari: haurrek libreki bozkaz aukeratzen zituzten testuak, eta haur bakoitzaren ahalmenen arabera egokitzen ziren lanak, finkatzen ziren lan-erritmoak eta banatzen ziren ardurak. Horren guztiaren bidez, ikasleek irakurtzen, idazten, marrazten eta behatzen ikasten zuten; baina, gainera, lankidetzan aritzen, beste pertsonekin harremanak izaten eta beren lanez arduratzen ikasten zuten, besteak beste.

Zipitriaren pedagogia indibidualismoaren, norberaren lorpenen eta pertsonalismoaren kontrakoa zen. Pedagogia euskaldunaren helburua, gelako jarduerak antolatzeko eran ez ezik, geroago irakaskuntzan aritu zirenei eman zizkien praktiketako eskoletan eta bere jardunaren funtsean ere agertzen zen. Zipitriak irakaspen horien bidez antolatu zuen eskola eraldatzeko bere metodoa.

Bestalde, metodo hori oso zorrotz garatu zuen. Maistrei ikasleei adina eskatu zien, praktiketako eskola horiek baliatu izan baitzituen bere berrikuntza metodologikoak hedatzeko; behin eta berriro esan dugunez, didaktikaz zuen ikuspegiaren ondorioz, ez zituen bere pedagogiaren ildo programatikoak idatzi nahi izan, eta beti ahozko transmisioaz baliatu zen berarekin praktiketan aritu zirenei metodoa azaltzeko.

Oinarri teorikoak gauzatzen egindako bidea

Gerra ondorenean, Euskal Herriak eskola librea, modernoa, euskalduna, europarra eta berria behar zuen, eta, behar horretatik abiatuz, Zipitriak jakin zuen ikastola izango zenaren lehen hazia ereiten; 36ko gerra ondorengo hezkuntza-sistema ilunean bere lekua egin zuen.

Europako hainbat herrialdetan gertatzen ari ziren berrikuntza pedagogikoei eta garaiko adituak garatzen ari ziren punta-puntako ikerketei adi zegoen, eta Euskal Herrira ekarri

zituen: abertzaletasunarekin eta erlijioarekin batera, haren metodoaren oinarri izan ziren.

Zipitriak bere etxean bertan zabaldu zuen euskal etxe-eskolan sortu zuen metodoa, eta han landu zuen. Ondoren, Orixe ikastolan egin zuena kopia bat besterik ez zen izan. Horrela garatu zuen ondoren sortu ziren ikastoletan segida izan zuen eredu pedagogikoa. Lan egiteko modu edota estilo horrek bazituen ezaugarri batzuk:

- Hasiera-hasieratik, jolasa eta kantua baliatu zituen irakasteko.
- Haren jardunean, kanpoko zein barruko bizipenak ziren ikasleen eskolako eta ikasteko jardueraren abiapuntuak. Ziurtatu nahi zuen ikasleen bizitza errealekin harremana zutela beti. Horren ondorioz, hezkuntzaren esku-hartzea ez zuen oinarritu ahoz transmititutako informazioan, baizik eta bizitzako esperientzietan eta gertaeretan. Eskola bizia zen.
- Ostegun arratsaldero, Urgulleko gaztelurantz igotzen zen ikasleekin; ibili eta haizea hartzeaz gain, ikastera joaten ziren.
- Ez zuen ikaslibururik erabiltzen, ikasle bakoitzak bere koadernoan eramatean zuen. *Xabiertxo* liburua soilik erabiltzen zuen.
- Matematika lantzeko, berriz, zotzak eta puxtarriak zituen. Zenbakiak eta letrak lurrean egiten zituzten, zotzak erabiliz.
- Lurrean eserita egiten zuen lan. Bere etxean, hormara altxatzen zen mahai bat zuen, eta idazteko soilik erabiltzen zuen.
- Ulermena eta logika lantzean, garrantzia handia ematen zion ekintzari eta manipulazioari.
- Arreta berezia eskaini zion betidanik aniztasunaren trataerari, hezkuntza-premia berezia zuten ikasleekiko sentiberatasun handia erakutsiz. Pertsonen arteko berdintasunean sinesten zuen; heziketa jasotzeko eskubide bera zutela uste zuen, eta ikasteko gai zirela, gainera. Sinesmen horiek oso aurreratuak

ziren garai hartarako. Izan ere, behar bereziak zituzten haurrak ez ziren joaten eskolara.

Hurrekin lanean hasi zenerako, finkatuta zuen bere helburu nagusia: haurrek euskara ikastea eta erabiltzea. Hezkuntza-arloan egin zuen ibilbideak bi zutabe izan zituen: euskara eta berrikuntza pedagogikoa.

Zipitriaren nahia izan zen haur euskaldunek beren etxeko hizkuntzan jasotzea hezkuntza, jakituria euskaraz landu ahal izatea. Garai hartarako, nahikoa ezohikoak eta oso aurrerakoiak izan ziren ideia horiek guztiak: Pestalozzi, Montessori, Ovidio Décroly, Jean Piaget, Freinet edo Pedro Poveda izan ziren bere erreferentziak, besteak beste.

Eskola-eredu tradizionalekin puskatu behar zela sinetsi zuen, bide berriak urratu behar zirela. Zipitriak neskak eta mutilak elkarren ondoan hazi zituen, berdintasunez. Pedagogia eta metodologia-sistema berritzaileenak aplikatzen zituen. Irudimen eta jakin-min handia zuen, horiek izan ziren bere bitartekoak baliabide didaktikoen falta gainditzeko. Eskolako atak bizitzari zabaldu zizkion, batez ere. Eta hori guztia euskaraz egin zuen. Bere etxean hartu zituen ikasleen familiekin asmo bera partekatu zuen, guztiek amets bera zuten: Euskal Eskola berria nahi zuten.

Elbira Zipitriaren lanak gaur egun duen eragina

Euskal hezkuntza osoan oso zabaldu daude Zipitriak erabili zituen baliabideak (zotzak, puxtarriak, ipuinak, kantak, dantzak); azaldu zuen berrikuntzako grina; eleaniztasunaren aldeko jarrera; aniztasunaren trataera; euskal kultura, eta haren trataera: tradizioak; neurri indartzaileak eskaintzea ama-hizkuntza euskara ez dutenei; irteerak; ikasleen lanaren erakusketak; heziketa-lanaren garrantzia.

Elbira Zipitria izan da Euskal Herrian euskarazko irakaskuntza berritatzeko argia piztu zuenatariko bat, eta, era batera edo bestera, guztiak daude txertatuta gaur egungo irakaskuntzan.

Adin desberdineko hurrekin egiten zuen lan. Beraz, aipagarria da



Elbira Zipitria ikasleekin.

mailako estrategiak eta sekuentzializatuak erabiltzeko plangintza bati jarraitzen ziola, kontzeptuak, edukiak eta prozedurak ulertuz barneratzen zirela ziurtatzeko. Hori antzematen da haien ikasleen koadernoetan.

Bestalde, ahalegindu zen bere ikasleek esparru instrumentalak, irakurketa/idazketa, kode matematikoa, mapen irakurketa eta abar ezagutzeko interesa izan zezaten. Elbirak bazekien ikasleek ulermen-zailtasun handiak zituztela ikasgai horiek barneratzeko; ulermen hori errazteko, abestiak, jolasak, olerkiak eta bestelakoak erabiltzen zituen.

Elbirak azterketak eta taldeko eztabaidak baliatzen zituen informazioa eta ikuspegiak trukatzeko eta ezagutzaren eskemak berrantolatzeko. Gelaren antolaketa, ikasleen lankidetzan ahalbidetzeko, jendarteko gertaerei eta eraginei buruzko gogoeta elkarrekin egiteko; gatazkak gainditzeko aukerak irekitzeko zegoen eginda. Horren ondorioz, gelaren itxura aldatu egiten zuen, landu nahi zuen gaiaren arabera.

Beste modu batera esanda, Elbiraren iritziak, ikasleek ikertzeko eta beren kasa konponbideak bilatzeko gaitasunari lehentasuna eman behar zitzaion, haien autonomia pertsonala eta morala indartzeko bidea baitzen. Horretarako, adibidez, ikasleak egunean bi orduz joaten ziren eskolara, baina ikasitakoa aplikatzeko beste zenbait jarduera egiten zituzten; esaterako, etxeko lanak: bakarkakoak edo taldean egindakoak.

Elbira Zipitriak ez zituen bere printzipio pedagogikoak eta metodologikoak idatzi. Horren ondorioz, hein handi batean bederen –eta jorratu zituen beste hainbat arlotan gertatutakoaren kontra–, gaur egun hezkuntza-arloan aditu gisa ezaguna ez izatea, eta zor zaiona aitortu ez izatea, berarekin praktikak egin zituzten ikasle haien ikastoletan izan ezik, ikastola horietan ezagutu eta zabaldu ahal izan baitute zuzenean Elbirarengandik jasotakoa. Ondoren, beste ikastoletara eta eskoletara hedatu ziren.

Bibliografia

- A. Arrondo eta D. Zubizarreta: *Elvira Zipitriaren bizitza eta lanari buruzko ikerketa*. Donostia, 1984.
- *Zipitria' tar Elbira "Andereñoa"*. Omenaldia. Euskarazaintza. 1986.
- L. Agirre: *Ipurtargiaren itzal luzea*, Joxemi Zumalabe. Euskaldunon Egunkaria. 2003.
- MK. Garmendia Lasa eta J.I. Etxezarreta Alberdi: *Ezkutuko ikastola: Elbira Zipitria*. Auñamendi Entziklopedia.
- MK. Mitxelena Illaramendi: *Elbira Zipitria (1906-1982)*. Bidegileak Bilduma, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005.
- R. Abasolo, J. Lopez de Muniain eta A. Urbe Irazusta: *Ilunetik argira, Elbira Zipitria*. Xangorin, 2004.
- J.M. Larrazabal Antia: *Elbira Zipitria gogoan Piageten argitan*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006.
- X. Aranburu Puente: *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian*. Cuadernos de sección. Educación 4. Eusko Ikaskuntza.
- M.C. Zeberio eta M.J. Munduate: *Errepublikara garaiako irakaskuntza*. 1985.

GALDEIDAZU

NOLA ERABILI EBALUAZIO HEZIGARRIA ETA PARTEKATUA GORPUTZ HEZKUNTZAN?

Gorputz Hezkuntzan (GH) bi ikuspegi nagusi daude ebaluazioaren gainean. Bata errendimenduari lotutako ikuspegia, eta bestea partaidetzari eta ikaskuntzari lotutakoa. Zer eginkizun hartzen dituzte bi ikuspegi horietan ikasleek eta irakasleek?

GHn azken urteetan aldaketa handiak txertatu arren, oraindik irakasle askok entrenamendu bat jartzen dute praktikan beren eskola-orduetan. Horrek ez du esan nahi test fisikorik egin behar ez denik. Proba bakar batean ikasleek egindako errendimendu motorra soilik kalifikatzen bada, horrek ez du ikasleengan ikaskuntzarik sortuko. Adibide gisa, ikasle batek minutuan 60 sabel-ariketa egitea lortuz gero, hamarra lortuko luke, baina eskolako lehen egunean lortzen badu, zer irakatsiko genioke handik aurrera ikasleari? Gure helburua ikasleak malabarismoak egitea baldin bada eta lehen egunean egiten baditu, zer irakatsiko genioke hurrengo egunean?

Ez ditugu ahaztu behar eskolan ditugun beste osagaiak: alderdi soziala, ikasleen arteko harremanak, autokontzeptua, gizarteratzea. Jakina da GH arloa oso tresna eraginkorra dela praktika fisikotik transferentzia onuragarriak lortzeko eta sedentaris- moari aurre egiteko.

Badakizue zergatik ez duten hel-



**DAVID HORTIGÜELA
ALCALÁ**

**Burgoseko Unibertsitateko
Fakultateko Gorputz
Adierazpeneko Didaktika
Arloko zuzendaria**



duen erdiek egunero ariketa fisikorik egiten? Haien ikasle-garaian GHn izan zituzten esperientziak ez zirelako onuragarriak izan. Aldatu egin behar dugu irakasle-lanean egiten duguna, eta zertarako egiten dugun pentsatu. Ikasleei ematen diegu tarterik prozesuan egiten dutenaren inguruan pentsatzeko eta hausnartzeko? Irakasleok bultzatzen dugu gelan ikasten dutena gelaz kanpo aplikatzea?

Non kokatzen dugu gure jarduna irakasleok? Errendimenduan (marka motor baten lorpenean) ala ikasleen partaidetzan eta ikaskuntzan?

Ikasleengan osasuna bultzatu nahi badugu eta gelatik kanpo ohitura osasungarriak izatea bilatzen badugu, ikasleen autokontzeptua hobetzea eta taldeko harremanak hobetzea nahi badugu, orduan, ikasleen partaidetzaren eta ikaskuntzaren ikuspegiak kokatu beharko ginateke GHko irakasleok.

Zer da garrantzitsuagoa, ikasle bati esatea minutuan 60 sabel-ariketa eginez gero kalifikazioan hamarra duela ala sabel-ariketak nola egin behar dituen erakustea? Zer ekarpen izango da onuragarriagoa? Ebaluazio-proposamen esanguratsuak eta benetakoak eskaini behar dizkiegu ikasleei, baloi medizinala metro bat luzeago edo atzerago botatzeak ez du inolako onurarik ekarriko ikaslearen ikaskuntza-prozesuan.

Ebaluazio hezigarria

Zer da ebaluazio hezigarria eta partekatua? Egiatzatzeko, balioztatzeko eta erabakiak hartzeko prozesu bat da; azken helburua irakasteko eta ikasteko prozesua optimizatzea da, baina ikasleari laguntzeko asmoarekin, eta ez soilik kalifikazio bat jartzeko. Ebaluazioa, normalean, ikaslearengan zentratzen dugu, eta zergatik ez irakasteko eta ikasteko prozesuan?

Zein da ebaluazio hezigarriaren helburua edo xedea? Garbi dago helburua ez dela kalifikatzea. Ikasleari ikasten laguntzeak izan behar du gure iparra. Jarduerak autorregulatzeako aukera izan behar dute. Ikasleek jarduerak haientzat esanguratsuak izan daitezten lortu behar dute. Guri, irakasleoi, akatsak garaiz zuzentzeko aukera emango digun tresna izango da ebaluazio hezigarria. Ikasleen eta irakasleen arrakasta bilatzen duen prozesua da, eta irakasteko eta ikasteko prozesuaren barnean txertatuta dago. Hori horrela egiteak errendimendu akademikoan onurak ekarriko ditu.

Ebaluazioa egiten den unearen arabera, hasierako ebaluazioa, ebaluazio jarraitua eta ebaluazio sumatiboa edo finala izan daiteke ebaluazioa.

Ebaluazioa zertarako den kontuan hartuz gero, ebaluazio diagnostikoa, ebaluazio hezigarria eta ebaluazio gehigarria izan daiteke.

Posible da ikasleekin adostea noten banaketa, taldean lan egin dutenean. Elkarriketan oinarritutako kalifikazioak bilatu daitezke. Taldekideek aurretik egin duten lanaren arabera banatzen dute azken nota. Prozedura horietara iristeko, alde aurretik hori egiten irakatsi behar diegu ikasleei, eta ziur guk ere geure burua jantzi beharra izango dugula.

Ebaluazio gehigarria bukatuta dauden prozesuetan egiten da. Prozesuaren bukaeran kokatzen da. Helburua izango da ebaluatu nahi den produktua positiboki ala negatiboki balioztatzea. Epe ertain edo luzeko erabakiak hartzeko aukera ematen du.

Ebaluazio hezigarria, aldiz, martxan dauden prozesuetan erabil dezakegu. Prozesu osoaren beste osagai bat bezala txertatzen da. Helburua

da ebaluatu den prozesua hobetzea. Neurri zuzentzaileak berehala hartzeko aukera ematen du.

Hiruko ebaluazioa

Gaur egun, kontzeptu berria ari gara erabiltzen ebaluazioan: hiruko ebaluazioa. Ebaluazio hirukoitzak bultzatzen da: alde batetik, ikaslearen autoebaluazioa; bestetik, taldeko autoebaluazioa (talde batek beste talde bati egiten dion ebaluazioa), eta, azkenik, irakasleak egiten duen heteroebaluazioa.

Ikasleei jarduerak autorregulatzeako ahalmena ematea komeni da. Ebaluazio hezigarrian, irizpideak hasieratik garbi eskaini behar zaizkie ikasleei, eta hainbat ohar eta gomendio eman behar zaizkie prozesuan zehar hobetzeko aukera izan dezaten. Prozesua aztertu beharko da, baina ez bakarrik irakaslearen aldetik. Ikasleen artean ere autoebaluazioa eta koebaluazioa bultzatu beharko dira. Ondoren, erabakiko da kalifikaziorako jautzia nola egin. Horregatik esaten da: *“Esan nola ebaluatzen duzun, eta zer irakasten duzun esango dizut”*.

Ez dugu gaizki ulertu behar, ebaluazio hezigarria ez da etenik gabeko kalifikazioa. Irakasle batzuek pentsatzen dute hiruhilekoan hiru proba egin, eta horrekin jada ebaluazio hezigarria egiten ari direla. Ez dira konturatzen benetan egiten ari direna etenik gabeko kalifikazioa dela.

Hobe da ikasleari prozesuan zehar *feedbacka* ematea; hala, bukaeran eskatuko diogun horretan hobekuntzak txertatzeko aukera emango diogu. Erabiltzen ditugu gure eskoletan behaketa-orriak, errubrikak eta eskala deskriptiboak ikasleak egiten dituen lorpenak mailakatzeko eta benetan jakiteko ikaslea ikaste-prozesuan non dagoen?

Gai dira ikasleak autoebaluazioa egiteko? Eta taldeko autoebaluazioa egiteko? Horrela, azken produktuaren aurretik, ikasleek beren ikaskuntza ebalua dezakete, eta helburuetara iristeko zer falta zaien antzeman. Ordura arte egindako lanari nota jartzeko gai ere izango dira. Ikasleak hori egiteko gai badira, oso ongi ulertzen ari dira murgilduta dauden irakasteko eta ikasteko prozesua. Ikasleak

Garbi dago helburua ez dela kalifikatzea. Ikasleari ikasten laguntzeak izan behar du gure iparra. Jarduerak autorregulatzeako aukera izan behar dute. Ikasleek jarduerak haientzat esanguratsuak izan daitezten lortu behar dute. Guri, irakasleoi, akatsak garaiz zuzentzeko aukera emango digun tresna izango da ebaluazio hezigarria. Ikasleen eta irakasleen arrakasta bilatzen duen prozesua da.

lanak egiten dituen eta irakasleak jarriko dion notaren zain dagoenean, egoera horretan irakasleak du kalifikazioaren botere osoa, eta horrela arituz gero irakasleok gaizki goaz prozesuan.

Ebaluazioan partaide aktiboak izaten utzi behar diegu ikasleei. Gaur egun, badaude aukerak ikasleek bere ebaluazio-errubrikak eraikitzeke, eta beste prozesu batzuetan, berriz, azken kalifikazioaren aurretik ikasleek gutxienez bi aldiz ebaluatzen dute beren lana.

Ikasleek jakin behar dute zer ari diren ikasten. Ikasleei galdetzen badiegu *“Zer ikasi duzue gaurko saioan?”*, eta ez badakite zer erantzun, zerbait larria ari da gertatzen. Primeran dago jolastea eta kirolak praktikatzea, baina ikasleek ikasten ari diren horren kontzientzia izan behar dute.

Hauxe galdetu beharko genioke irakasleok geure buruari: *“Zergatik egiten duzu egiten duguna eta une jakin horietan? Zergatik aukeratzen ditugu gure programazioetan batzuetan akrobaziak, besteetan saskibaloia eta beste batzuetan esgrima? Badago sekuentziarik unitate didaktiko horien artean? Badago koherentziarik eta justifikazio logikorik gure programazioetan?”*. Bestela, hainbat unitate

Zer desberdintasun dago ahalmenaren eta kompetenziaren artean? Ikasle batek ahalmena eduki dezake zerbait egiteko, eta kompetentzia da ahalmen hori egoera erreal batean baduela erakustea. Batzuetan, irakasleok mugatzen ditugu ikasleen ahalmenak. Horregatik da garrantzitsua ikasleei aukera ematea ikasi duten hori erakusteko. Horregatik, lantzen ditugun jarduerak ikasleen kompetentzia bultzatu behar dute, eta aldi berean, autonomia eta erlazioak zaindu behar ditugu.

didaktiko bata bestearen ondoren txertatu besterik ez dugu egiten, inolako lotura eta logikarik gabe.

Eta Gorputz Hezkuntzan, zer?

Alde batetik, batzuek pentsatzen dute alderdi motorra dela bide bakarra. Bestetik, beste batzuek pentsatzen dute ezin garela bakarrik alderdi motorra lantzerako mugatu. GHk garrantzia hartzen du ikaskuntzan, motrizitatea elkarren arteko harremanak bultzatzeko baliabide bezala ulertzen dugunean. Ez digu balio oso ikasle trebea izateak eskolan, hamarrekoa, gero laguna lurrera botatzen badu eta altxatzeko eskua ematen ez badio.

Gizarteko harremanei garrantzi handia eman behar diegu, baina talde osoaren arteko harremanei, ez soilik lagun lagunak izateko orduan. Beraz, ikasleen gizarteratzera bideratu behar dira erlazio sozialak.

Autonomia bultzatu behar dugu ikasleen artean. Lantzen ari diren proiektuan inplikaturik baldin badaude, beren kabuz lanean hasteko gai

izango dira, nahiz eta irakaslea aurrean ez egon. Ikasleei aukera eman behar diegu ikasi dutena erakusteko; horrela eginez gero, haien maila hobetu egingo da.

Autonomia bultzatzeaz gain, ikasleak beren ebaluazio-prozesuan inplikatu behar ditugu, autoebaluazioa, koebaluazioa eta taldeko ebaluazioa bultzatuz.

Zer desberdintasun dago ahalmenaren eta kompetenziaren artean? Ikasle batek ahalmena eduki dezake zerbait egiteko, eta kompetentzia da ahalmen hori egoera erreal batean baduela erakustea. Batzuetan, irakasleok mugatzen ditugu ikasleen ahalmenak.

Ikasleei zerbait egiteko gai direla erakusten diegunean, behin eta berriro erakutsi nahi dute gaitasun hori. Adibidez, soka bikoitzean jauzi egitea. Hori gizakion ezaugarri bat da. Dantzan dakiena dantzan hasiko da horretarako aukera duenean, bakoitzak horrela egiten du, duen gaitasunaren arabera. Prozesu hori areagotu egiten da nerabezaroan. Adibidez, *parkour* unitate didaktikoa lantzen dugunean, ikasleak korrika etortzen dira saiora. Ikasleen motibazio-maila izugarri igotzen da ikasi dutena erakutsi nahi dutelako. Guk, irakasleok, eskolen arrisku objektiboa kontrolatu behar dugu, ikasleek duten arrisku subjektiboarekin batera.

Garrantzi berezia eskaini behar diogu arlo sozialari, jarduerak lantzeko ikasleak taldekatzeko orduan. Lantzen ditugun jarduerak ikasleen kompetentzia bultzatu behar dute, eta, aldi berean, autonomia eta erlazioak zaindu behar ditugu. GHko eskolatan, hiru alderdi horiek erlazionatzen dira ikaskuntzan.

Ikasleek eskolatik kanpo jarduerak egitea nahi badugu, aukera gehiago izango dituzte, haien artean lotura sozialak lortzen baditugu (adibidez, korrika egitera joateko bakarrik ateratzea baino errazago izango da kideekin ateratzea).

Gure programazioetan eduki berriak txertatzea ere oso gomendagarria da; normalean, ikasleek oso ondo hartzen dituzte proposamen berriak.

Idea garrantzitsu hau azpimarratuko nuke: ikasleei aukera eman behar diegu ikasi duten hori erakusteko.

Gure eskolatan eta jolas-orduan gertatzen denak ikasleei buruzko informazio ugari ematen digu. Nork erabiltzen ditu patioeko erdiko guneak? Kasu gehienetan, mutilek, futboleko jolasteko. Egoera horren aurrean, zer erabaki har dezakegu? Eskola batzuetan, pentsa dezakete onena futbola debekatea dela. Ikasleen jarrerak ez dira aldatzen debekuen bidez. Aldatzea nahi ditugun jarrerak esperientzia onuragarriak biziz gero aldatuko dituzte ikasleek. Normalean, dantzen proposamenen aurrean, DBHko ikasle mutilak protestaka hasten dira, eta atzera egiten dute. Pauso errazak dituzten dantzak eskainiz gero eta talde osoan egiten badugu, ikasle guztiek nahi izaten dute dantzan jarraitu. Gero, jolas-orduan bozgorailu txikiak eramaten dituzte, eta beren kabuz aritzen dira dantzan. Ziur aski, oso futbolzaleak diren askok futboleko jarraituko dute, baina esperientzia onuragarriak eta aberasgarriak bizitzeko aukera eskainiko diegu. Debeku hutsaren bidetik ziur lorpen gutxiago egingo ditugula.

Ebaluazioa praktikara eramateko hainbat estrategia eta tresna

Ebaluazio hezigarria ulertzeko adibide garbiak eta ugariak daude:

- *Escape room*: gela batean, gimnasioan, taldea itxita geratzen da. Arazo motorrak konpondu behar dira gelatik irteten ahal izateko. Ordubeteko epea ematen zaie. Bukieran, arrakasta-sentsazioa sortzen da motrizitatearen bidez.
- Zango-makilak: ikasle bat zango-makilen gainean ibiliko da, eta beste batek lagundu egingo dio, zuzenketak egingo dizkio eta *feed-back* eskainiko, errazago ikasteko. Taldean pentsatzen dute eta egiten dituzte hausnarketak gero denen artean ekiteko.
- Akrobaziak DBHn: talde osoak hainbat irudi sortu behar ditu, lankidetzan.
- Bideo-muntaiak egitea: ikasleek ikasi dutena bideo baten bidez adierazten dute, ikasi dutena erakusten dute. Hausnarketak eta bizipenak bultzatzen ditu.



Hiru edo lau kidek bideoa prestatzen dute, 3-4 minutuko iraupenekoa. Egindako lanak gelako blogera igotzen dira. Horrela, ikasleek ez dute azterketa puntual baten presioa. Prozesuan, irakasleak *feed-back* eskainiko die.

- *Balonkorf*a: kirol alternatiboa.
- Erronka kooperatiboak: ikasle bat koltxoneta handiaren gainean kokatzen da zutik. Kide guztiek batera lurretik altxatzen dute, lehenik gerriaren pareraino, eta, azkenik, buru gaineraino. Ondoren, lurrean utziko dute berriro. Denbora guztian ikaslea zutik egoten ahalegindu behar da.
- Pasilloa: aurrez aurreko bi ilaratan eta soka pila bati eutsita jartzen dira ikasleak. Ikasle batek korrika egin behar du, jauzi egin eta sokan gainera bota. Antzeko jarduera, baina atzeraka botatzea.
- Judo: ikasturtean landutako teknikekin kate bat osatu behar dute taldean.
- *Parkour*: ikasleei hainbat elementu erakutsiko dizkiegu. Bukieran, ikasleek istorio bat sortu behar dute. Adibidez, polizia eta lapurra, musikarekin girotua. Beste ikasleak, aldi berean, koebaluazioa egiten arituko dira, errubrika baten bidez.
- Erresistentzia: proba bat Cooper testa izaten da, eta 12 minutuz korrika egin behar dute, gelditu gabe. Irakaslea naizen aldetik, saiatzen naiz ikasleak zirikatzen, haien emozioekin jolastea bilatzen dut, haiek ekintzara atxikitzea.
- Bikoteka kokatzen dira, bat korrika egiten eta beste kidea denbora-neurketak egiten. Ondoren, egindako lanaren grafiko bat egiten dute. Hasieran, grafikoan gorabehera asko agertzen dira, baina, bukaeran, nahiko marra zuzena lortzen dute grafikoan. Etenik gabe korrika egitean, antzeko erritmoari eusteko gaitasuna lortzen dute. Horrela ikasten dute beren esfortzua doitzen.
- Aparrezko ezpata: oso emaitza onak ematen ditu. Bi ikasle dueluan aritzen dira, elkarren aurka aurrez aurre. Ezpatariak direla antzezten dute; horrela, egoera fisikoaz gain, gorputz-adierazpena ere garatzen dute. Musika aukeratzen dute, eta koreografia bat sortzen dute. Ikasle batzuei horrelako ekin-tzen bizipen sakonen arrastoa geratzen zaie luzaroan.
- Galdera hezitzaileak osatzea: irakasleak azterketa batean galderak egin beharrean, talde osoak, talde txikitik banaturik, 60 galdera prestatzen ditu gaiaren inguruan. Gero, irakasleak galdera-bateria horretako galderak aukeratuko ditu azterketan jartzeko.
- Desgaitasuna: unitate didaktiko hau sentsibilizaziorako prestatuta dago. Nola hartu parte desplazamenduetan, jaurtiketetan esku bakar batekin, hanka batekin, gorra izanda, itsua izanda.
- Sokak: bakarka soka saltoan, eta aldi berean beste bi ikasle ematen ari diren soka luzean jauzi egin behar dute. Hirunaka, sokekin hainbat era bilatzen dituzte jauzi egiteko (kremailera, hirukia, pasabidea, soka bikoiztua); azkenik, prestatutakoa erakutsi egin behar dute.
- Gorputz-adierazpena: proposamen honetan, itzalen eta argi beltzaren teknikekin antzerkia prestatzen dute ikasleek. Lotsa gairatzeko oso proposamen egokia da. Maindirearen atzean oso lasai sentitzen dira, ikusleak aurrean ikusten ez dituztelako.

Zertan jarraitu behar dugu lanean?

Jardueretan ikasleen autorregulazioa bultzatzen jarraitu behar dugu, eta ikasten dutena transferitzen, taldeko giroa zaintzen eta ahal den neurrian hobetzen, taldeko nortasuna indartzten, hausnarketa kritikoak bultzatzen eta arazoaren aurrean ikasleen sormena lantzen.



'ANIZTASUN soziala eskolan:
komunitatearen AHOTSAK' jardunaldia
Otsailaren 15an DONOSTIAko EHUin, goizez

*Aniztasun soziala erantzutzea emaketa handia da gaur egun gure eskoletan —magari bai jatorriaren eta maila sozio-ekonomikoaren lotura dagoenari—. Hainbat ikasleekin **guztira guzto nabarmenak** ari dira ematen. HH-ko eta LH-ko komunitate berriak ahotsak jasoko dituzte:*

- NOLA ERANTZUTZEN DUTE IKASLEEN ANIZTASUN SOZIALA?
- ZER ERANTZUN DUTE IKASLEEN?
- ZER ERANTZUN DUTE GURUGOIZTAN?
- ZER ERANTZUN DUTE IKASLEEN KULTURAREN BARRIAN?

ARGITALPENAK



EUSKAL KULTURA 2018

Askoren artean

JAKIN

2018ak eman duenari erreparatuz osatu du Jakinek 229. zenbakia, honako egileekin: Sustrai Colina, Izaro Ieregi, Alberto Barandiaran, Nora Alberbide, Maite Berriozabal, Xabier Gantzarain, Ines Arrue, Oier Guillan, Peru Iparragirre, Txakur Gorria, Adur, Axi, Dani Fano, Diego Pallés, Eider Eibar eta Paula Estevez.



DINOSAUROEN INBENTARIOA

Virginie Aladjidi / Emmanuelle Tchoukriel

PAMIELA

Irakurlea harritzeko, liluratzeko, eta dinosauroak berraurkitzeko liburua da honakoa. Berritasunez betetako inbentario honetan 47 dinosauro espezie azaltzen dira, garai geologikoen arabera banaturik: Triasikoa, eta *Mussaurus patagonicus*, adibidez; Jurasikoa, eta *Diplodocus carnegii*, besteak beste; eta Kretazeoa, *Tyrannosaurus Rex*-en garaia.



BEHINOLA 38. ZENBAKIA

Askoren artean

GALTZAGORRI ELKARTEA

Formatu berrituarekin dator Galtzagorri Elkarteak argitaratzen duen Haur eta Gazte Literatura aldizkaria. Zenbaki honetan, besteak beste, Joseba Sarriandiararen lau ipuin-poema argitaratu dituzte, Federico Martin Nebrasen elkarrizketa-abezendaria edota Pello Añorgaren liburu kuttuna zein den ezagutzeko aukera eskaintzen da.



ONGI ETORRI ETXERA, KASTORE!

Magnus Weightman

TTARTTALO

Kastore abentura bila joan da etxea utzita, baina bidean galdu egin da. Aki-ta txakurra munduan zehar dabil bere globoan, eta lagundu egingo dio etxerako bidea aurkitzen. Baina nolakoa da Kastoreren etxea? Magnus Weightman ilustratzaile eta arkitektoak munduan zehar eramango zaitu animalien bizileku ederrak erakusteko. 4 urtetik gorako haurrei dago zuzendua.



BISERA GORRIA

Antton Kazabon

EREIN

Ustekabeen zoritxarra heldu da liburu honetako protagonisten artera. Martina desagertu egin da, eta urduri daude denak, eta lur jota. Non arraio sartu da Martina? Nonbaitetik berehala agertuko zela pentsatzen zuten, baina hilabete igaro da eta oraindik ez dute haren arrastorik. 12 eta 16 urte arteko gazte-xoei zuzendutako liburua da, Antton Kazabon idazle ezagunak idatzia.



JAKINGARRIAK 77. ZENBAKIA

Askoren artean

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzen Fakultateak argitaratzen duen aldizkari honen 77. zenbakiak argia ikusi du. Oraingo honetan 'Hizkuntza, kultura eta identitatea hezkuntza eremuan' izan da jorratu duten gai nagusia eta, besteak beste, historiaren transmisioaz eta euskal gazteen nazio identitateaz, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaz eta heziketa hipermodernoaz mintzatu dira.

PROPOSAMENA

Topic Nazioarteko Txotxongilo Zentroa

Txotxongiloen artea ezagutu eta sortu

Txotxongiloen mundura bidaia egitea proposatzen du Tolosako Topic zentroak, eta antzerkiaren barneko diziplina hau barnetik ezagutzea. Urteak daramatzate hurrei zuzendutako emanaldiak eta tailerrak antolatzen, eta museora bisita ere egin daiteke. Mundu osoko 2.100 panpinek osatutako bilduma ikusteko aukera eskaintzen du Nazioarteko Txotxongilo Zentroak.



Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa da Topic. 2009an ateak zabaldu zituenetik, txotxongiloen artean murgildu eta irudimena, berrikuntza eta originaltasuna landu dituzte hamaika proiektu ezberdinen bidez. *Unima*, Txotxongiloaren Nazioarteko Elkarteko kidea da Topic, eta Europa osoan txotxongiloen artea ezagutzeko zentro integral bakarra da.

Haurrak dira Topic zentroko hartzaile nagusiak. Zentroak haurrak antzer-

kiarekin duen lotura orotan sakontzea du helburu, eta txikienak modu natural baina gidatu batean antzerki mota honetara hurbiltzea lortu nahi dute.

Helburu horiek lantzeko, zentroak honako guneak ditu bere barnean: museo iraunkor bat eta aldi baterako erakusketak; digitalizatutako dokumentazio, artxibo eta mediateka bat; 250 ikuslerentzako edukiera duen espazio eszenikoa; ekintza eszenikoe-

tarako espazio bateragarriak; tailer eta ikastaroentzako gelak; eta artista edota ikerlarientzako egoitza txiki bat.

Horrez gain, zentroak bere barnean badu mundu magiko honetan barneratzeko altxor preziatu bat ere: txotxongiloen bilduma. Mundu osoko herrialdeetatik etorritako eta manipulazio teknika desberdinez osatutako txotxongilo bilduma oparora bisitatu daiteke Topic-en. Bertako

arduradunek aipatzen dutenez, Asiako herrialdeetako erakusketa da zabale-
na, baina Ameriketako, Afrikako eta
Europako txotxongiloak ere ikusgai
daude. Guztira, 2.100 panpin inguruk
osatzen dute bilduma.


Eskola Kanpaina, bederatzigarrenez

Hurrei zuzendutako emanaldi eta tai-
ler ugari antolatzen dute Topic-en, eta
ikastetxeekin ere elkarlanean aritzen
dira. Izan ere, zentroan urteak dara-
matzate ikasturterako Eskola Kanpai-
nak garatzen. Aurtengoa bederitzar-
garren kanpaina izango da eta ekaina
bitartean bederatziko konpainiarekin
egingo dute lan. 4 urtetik gorako
ikasleei eta bereziki Lehen Hezkun-
tzan dabilzanei zuzendutako progra-
ma izan ohi da eta hainbat jarduera
egiten dituzte ikasleekin: besteak
beste, txotxongilo ikuskizun bat ikusi,
txotxongiloak egiteko tailer batean
parte hartu, eta zentroko museoa
bisitatu. Topic-eko pedagogia saileko
arduradun Karmele Cruzek kontatzen
duenez, “bisitaren aurretik eta ondo-
ren, lan dibertigarri bat burutuko dute
ikasgelan, eta egun zoragarria igaroko

dute gurekin, txotxongiloen munduaz
gozatu eta pixka bat gehiago ikasiz”.

Tailerretan txotxongilo bat egiten
ikasten dute, baina ez edonola. “Ez
dugu itsatsi eta ebaki moduko ariketa-
rik egiten, guretzat garrantzi handikoa
da haur bakoitzak bere panpina egi-
tea. Sorkuntzarekin lan egiten dugu,
eta hori garatzeko aukera ematen
diegu. Denei erakusten dizkiegu oina-
rriko teknikak, baina bakoitzak bere
txotxongiloa egitea nahi dugu. Ez
daitezela denak txotxongilo berarekin
irten”.

Aurtengo ikasturteko Eskola
Kanpainan parte hartzen ari diren
konpainiak honakoak dira: Engru-
na Teatro (Katalunia), Hop Signor
(Grezia), Trukitrek (Katalunia),
Merlin Puppet Theater (Grezia-Ale-
mania), La canica (Madril, Espainia),
La Negra (Valentzia, Espainia), Anita
Maravillas (Euskal Herria), Titirigui-
ri (Madril, Espainia) eta Tanxarina
(Galizia). Joan den urtean, 2.500
haurrek eta 40 ikastetxek parte hartu
zuten programan eta aurten iazko da-
tuak gainditzea espero dute zentroko
arduradunek.



Topic Txotxongilo Zentroa

Harremanetarako

- Topic Txotxongilo Zentroa
- Helbidea: Euskal Herria Plaza, 1,
20.400 Tolosa
- Tel.: 943 65 04 14
- E-posta: cit@cittolosa.com
- Webgunea: www.topicitolosa.com

Hezkuntza arloko eskaintza

Eskola Kanpainaren barnean:

- Txotxongilo ikuskizunak
- Txotxongiloak egiteko tailerrak
- Museora bisitak



ATZEKO ATETIK



HEZKUNTZA ZER DA?

LIERNI ALTUNA UGARTE GAI-JARTZAILEA

Administrazio publiko zein pribatu batek kudeatzen duen sistema arautu hori dela pentsatuko du jende askok eta askok, baina hezkuntza hori bakarrik da?

Jaiotzetik hil artean hezten eta ikasten ari gara, elkarrekin normalean gainera, nahiz eta gero norberak barneratu eta kudeatu behar duen ikasitakoa. Eskolan gauzak erakusten dizkigute edota erakusten ditugu, baina eskola arautua da, ordutegi, adin eta, gainera, curriculum zehatz batekin. Hortik aurrera ez da ezer irakatsi eta ikasi behar?

Nik baietz esango nuke, nahiz eta gaur egungo gizartean badirudien administrazioak bere gain hartzen ez duena ez dela existitzen edo ez dagoela edo ez daukagula zilegitasunik egiteko...

Eskola ezinbestekoa da pertsonon iruditeria sortzeko; mundua hobeto ulertzeko; munduan, gure gizartean, gure herrian... bizitzen erakusteko; gu ere gizartean subjektu egiteko;... Edo, hein handi batean, horrela izan beharko litzatekeela uste dut nik...

Baina ez dut uste hori denik gaur egungo errealitatea.

Orduan, badirudi bi hezkuntza “mota” nagusi sailkatu daitezkeela: arautua eta ez arautua. Arautua administrazioak kontrolatzen duena litzateke; eskola, beraz, burokratizatua, estua, lotua,... Eta ez arautua inork konkretuki kontrolatzen ez duena, arau idatzirik ez duena, askea, nasaia,...

Baina hezkuntza arautua sarri burokraziak kontrolatzen du, askotan helburua bera ere galduz, eta ikasleei robot bati bezala curriculum zehatz bat irakasteaz aparte, gauza gutxi ahalbidetzen du administrazioak. Zorionez irakasle eder asko daude burokraziari humanitatea txertatzen diotenak baina.

Eta hezkuntza ez arautua askea da, agian askeegia gaur egungo gizarte arautu eta estu honetan. Askatasunean galdu egiten gara askotan, eta arautuak beti gutxiesten du ez arautua. Ahalduz handia eskatzen du, gizarteko subjektu garen heinean, gutariko bakoitza, gizarteko eragile eta irakasle garenaren kontzientzia

hartzeak.

Gauzak horrela ikusita, zergatik ez dugu hezkuntza arautua, eskola, burokraziaren kateetatik askatzen, eta ikasle bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda, curriculumak elkarbizitzako balore onekin irakasteko eta ikasteko leku bihurtzen? Hori lortu nahi badugu, sistema eta curriculum estu hau ezartzen diguten burokratek eta “demokraten” aurka borrokatu beharko genuke.

Eta zergatik ez dugu berreskuratzen hezkuntza ez arautuaren balorea? Etxean, kalean, mendian, jolastokian edo tabernan gauzak ikasteko eta irakasteko ere bagauden subjektuak gara eta horren kontzientzia hartu beharra daukagu. Elkarrekin ikasteko eta elkarren artean gizarte sano bat etengabe eraikitzen joateko, gutariko bakoitzak horren ardura dugula konturatu behar gara berriro. Eta hori lortu nahi badugu, lehenengo norbere buruaren aurka borrokatu beharko gara.

Segi dezagun, edota has gaitzen, bada, elkarrekin eta elkarrengandik, ikasten (desikasten) eta erakusten...

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Zatoz
gurea!

BAZENA,
JASOENA, BAZENA...

Arrendaketa / Utartzea 28€ orokorrean
0901 400000 / www.kiduzan.net

Erabili, eragileak
KIDUZAN

Aukeratuz Publikoa, guztionak
Elige La Pública, la de todos y todas

BERRI
TZAI
LEA



6571378

MU
TI
LINGÜE



6571379

INGUA
LITIA
RIA



6571380

IN
KLU
SI
BOA



6571381

ALREMATRIKULAZIOA 2019/2020 PREMATRIKULAZIÓ

Otzailaren 4tik 8ra (del 4 al 8 de febrero)

www.gurematribikulasia.eus | matribikulasia@nasa.eus

012

Ministerio de Educación
Gobierno Vasco



Gobierno de Navarra